

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2019-11-29 OSTIRALA / 709. ZENBAKIA / 2. AROA  
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



*Oporretara goaz!  
Hurrengo Guaixe  
aldizkaria  
abenduaren 13an  
izanen da*



**Guaixe 25**  
*batzen gaituena*



**Kluben Arteko Nafarroako Paleta Gomako txapeldunak dira Irati Igoa eta Ruiz de Larramendi** / 17



**Irati Irigoienek Nafarroako senior mailako Txapelketa irabazi du 16 urterekin** / 19

**Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguneko egitarauaren azken hitzorduak** / 6-7

**Mende bat bete duela ospatu du Iberica de Suspensiones enpresak ate irekien jardunadiarekin** / 8

**'Xaxardi' argitaratu dute Iker Uribek eta Joana Zigandak, haien bigaren ipuin ilustratua** / 23



GABONETAKO GEHIGARRIA



## Zahartze aktiborantz

Europako dirulaguntza jaso du Sakanak arlo horretan proiektua garatzeko / 12-13



Pello Ruiz Bordegarai eta Mikel Urrestarazu Zabalo, 2019ko Kirol Merituari Zilarrezko Dominarekin. UTZITAKOA

# Zilarrezko domina, merezita

Pedro Mari Ruiz Bordegarai eta Mikel Urrestarazu Zabalok Nafarroako Gobernuaren 2019ko Kirol Merituari Zilarrezko Domina jaso zuten asteazkenean Nafarroako Jauregian, urte luzez mendizaletasuna eta pilota sustatzeagatik

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA  
Nafarroako Gobernuak Kirol Merituari Urrezko eta Zilarrezko Dominak banatu zituen asteazkenean Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan egindako ekitaldi instituzionalean, Nafarroaren Eguna ospatzeko ekitaldien barruan. Maria Chivite presidentek Urrezko Domina Alberto Undiano Mallencori banatu zion "futbol-epaile gisa Nafarroako erreferente nagusia eta nazio-mailan zein nazioartean adierazgarrietakoa izateagatik, hutsik gabeko ibilbi-

de eredugarrian zehar". Horretaz gain, Nafarroan kirola sustatzeko zuzendaritza-lanetan edo entrenatzaile gisa egiten duten lanari errekonozimendua egiteko 25 Zilarrezko Domina banatu zituen, eta bi Sakanara etorri ziren: Pedro Mari Ruiz Bordegaraiak eta Miguel Angel Urrestarazu Zabalo altsasuarrak jaso zuten oroigarria, mendizaletasuna eta pilota sustatzeagatik egiten duten lana eskertzeko.

Pello Ruiz mendiari lotuta bizi da: asteroko irteerak lagunar-

tean, Sakanako Mendizaleak taldeak antolatutako hileroko mendi zeharkaldietan aritzen eta elkarteko presidente lanak egiten... betiko mendigoizaleen ispilu. Eta Mikel Urrestarazu, berriz, pilota-epaile fina. Ingaruko frontoi guztietan ezaguna, kategoria txikietatik hasita profesional mailara bitartean ehunka partida epaitu ditu eta pilota sustatzen lan handia egin du altsasuarrak. Domina jasotzeko ekitaldian bertan bildu ginen eurekin.

## Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Nola hartu duzu 2019ko Kirol Merituari Zilarrezko Domina?

Ni ez naiz omenaldien eta halakoen oso zalea, ez ditut oso gustuko. Baina pilota-epaile lanetan daramatzadan urteen eskertza den aldetik, ilusioa egiten dit. Nik beti pentsatzen dut zer baitetan bazaude nahi duzulako dela, besterik gabe, ez duzula ordainetan ezer espero. Dena den, aurtengoa epaile moduan nire despedida izango da, urte bukaeran epaile izateari utziko diodalako, eta alde horretatik izendapena eskertzen dut.

## Noiz hasi zinen pilota munduan?

17 urtera arte pilota partidak jokatu nituen, jubenilak arte, eta ondoren futboleko hasi nintzen, Sociedad Deportiva Alsasuan. Frontoian ibiltzen ginen asko. Nafarroako Pilota Federazioko kide Pablo Lopez altsasuarrak proposatu zigun ea federaziora joan nahi genuen, animatu nintzen, eta bertan epaile izan nahi ote nuen galdetu zidaten. Baiezkoa erantzun, izena eman eta horrela hasi nintzen epaile. Orduan pilota-epaileak Nafarroako Federazioak kudeatzen zituen.

## Pilota-epaile izateko ikasketaren bat egin behar zen?

Pilotaren araudia zen oinarria. Ni 1975-1976an hasi nintzen epaile. Nafarroako Federaziotik deitzen zizuten: "Altsasun partida dago larunbatean. Ahal duzu epaitzera joan?" Edo Etxarrin, Irurtzunen... horrela hasi nintzen. 1980. urtean ezkondu eta Araian egon nintzen bizitzen urte eta erdi, eta tarte horretan pilota-epaileen lehen kurtsoa egin nuen Gasteizen, Nafarroan oraindik ez zelako inolako azterketarik egiten. Lehen pilota-epaile karneta Gasteizen atera nuen, Euskal Pilota Federazioan. Egun, epaile izateko epaile titulua izan behar duzu. Gogoratzen dut ere 1991 urtean Bartzelonara joan ginela Miguel Mendinueta arbitzuarra eta biok epaileen titulu nazionala ateratzera. Duela 25 urte inguru Nafarroako Epaileen Komitea sortu zen. Kolegioko ordezkari bat Nafarroako Fede-

razioarekin koordinatzen da, baina autonomia gehiago du. Kolegioan bospasei epaile geunden, Nafarroako zonalde ezberdinetakoak: Angel Salaberria, Fernando Soteras, Mikel Erro, Jesus Ruiz, Patxi Ruizen aita, ni... eta partidak eskualdeka banatzen genituen. Nik Sakanakoak egiten nituen, tarteka Larraun, Lekunberri edo Leitzakoren bat, eta Lizarraldekoak ezin zuenean bertakoren batek...

## Gogoan duzu epaile-lanak egin zenituen lehen partida?

1976. urtean izango zen, ziuurrik Altsasun, ez dut oso ongi gogoratzen. Kategoria txikikoekin eta afizionatuekin Nafarroako Txapelketak, Sociedad Deportivako Altsasuko Otadiko Kristo Deuna, herrietako partidak... guztiak epaitu izan ditut, eta baita gurean jokaturako pilota partida profesionalak ere. Hemen nirekin batera Javier Irigoien, Txikuri eta Miguel Mendinueta ziren epaileak. Euren epaile izateari utzi zioten eta nik bakarrik jarraitu nuen.

## Pilota partida profesionaleko epaile ere izan zara.

Bai, urte honetara arte, 2019tik enpresek bere epaile propioak dituztelako. 2019ra arte gurean egiten ziren partida profesionaletik %99 nik egin izan ditut epaile-lanak, laguntzarekin. Regi I. eta Tapiatik hasi eta ondoren pasatu diren pilotari profesional guztiak epaitu ditut, unean uneko figurak.

## Ardura handia izango du horrek.

Ni profesionaletan gustura ibili izan naiz. Askok esaten zidaten presioari nola egiten nion aurre, jendeak diru asko jokatzeko zuela kontuan hartuta, baina nik presio giro hori gustuko nuen. Eta afizionatuekin eta haurrekin ere, guztiakin ibiltzen naiz gustura.

## Pilota-epaileari errespetua izaten zaio edo errespetu hori, beste kirol batzuetan bezala, galdu egin da?

Aldatu da. Lehen bat gehiago zinen kantxan; pilotariak ez zizun ezer esaten, zu okertu edo ez. Baina Titin, Irujo eta halakoen pilotari eraldatu zutenetik -niretzako pilotari iraultza hori



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor  
SISTEMA  
BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Mikel Urrestarazu Zabalo oso ezaguna da Sakanako eta kanpoko frontoietan. UTZITAKOA

# "Aurtengoa nire azken urtea izango da epaile"

**MIKEL URRESTARAZU ZABALO** PILOTA-EPAILEA

Nafarroako Gobernuaren 2019ko Kirol Merituari Zilarrezko Domina, 1975 urtetik pilota-epaile izan eta pilota sustatzeagatik

aurrerapausua izan zen- epaileari zuzentzeko modua aldatu zen, azalpenak eskatzen hasi ziren pilotariak. Momentu horietako beroaldietan esandakoak kantxan geratzen dira. Nolanahi ere, sarritan ikusi izan dituzte gaztetxoak epaileari hitz gogorrak esaten eta gurasoak ondoan egon eta semeari ezer ez esan. Eta nire betebeharra, araudiak jasotzen duena, gaztetxo horiei halakoak ezin direla esan esatea da.

## **Nolako epailea zara?**

Nik esango nuke 0 tolerantzia duen epailea naizela. Partida bat 18:00etan hasten bada ordu horretan hasten da, ez 18:10ean, eta hori pilotari guztiek jakin behar dute, berdin zait berandu iristearren arrazoia. Hortaz, agertu ez denari partida galdutuz eman behar zaio. Gero, partida ondoren edozer esatera hurbildu ahal zaizkit pilotariak, ez dut problemarik, baina partida jokatzen den bitartean ez dut ezer toleratzen. Eta berdin jarraitzen dut. Eta profesionalekin berdin.

## **Lan zaila zurea. Abiadura horrekin pilotakada batzuk non erori diren ikustea zaila da oso.**

Gauza bat esango dizut: partida telebistan ikusten nagoenean zalantza gehiago sortzen zaizkit partida batean epaile nagoenean baino. Epaile nagoenean normalean ez dut zalantzarik, eta telebistan bai. Epaile bezala hanka sartu ahal dut, baina pilotariaren postura ikusten duzu, horrek pista ematen dizu bigarren botea eman baino lehenago iritsi den hala ez... Dena den, oso konplikatuak diren jokaldiak daude, eta zuk segundo batean hartu behar duzu erabakia.

## **Halakoak makina bat...**

Behin, Altsasun, 21 berdinduta zeudela Mikel Goñiren jaurtike-

## **"EPAILE LANETAN OKERTU NAITEKE, BAINA EZ DUT TANTORIK EMAN SEKULA INORI MESEDE EGITEKO"**

ta txapara joan zen. Nik falta eman nion Mikeli, bera gerturatu zitzaidan eta esan zidan "inoiz ez didazue alde ematen, jende erdiak ere ez du txapa soinu entzun...". Bera oso mutiljatorra zen, eta erantzun nion pilotak txapa jo zuela eta falta eman behar niola. Partida horretan bere alde dirua jokatu zuen taldetxo bat zegoen, nik banekien, eta esan zidaten: "ez bazenu falta emango dirua irabaziko genuke". Baina nik oso argi izan dut beti. Epaile lanetan akatsak egin ahal ditut, okertu naiteke, baina ez dut tantorik ontzat emango nire anaiak, edo nire lagunak dirua jokatu dutelako. Ezin dut atzean nor dagoen begiratu, bestela ez nintzateke epaile izango, ezingo nuke nire lana lasaitasunez egin.

## **Beraz, epaile zorrotza Mikel...**

Irujok ere esaten zidan: "gaur irabazi nahi badut bi tanto gehiago egin beharko ditut, zu epaile zaudenean bi tanto kentzen dizkidazulako gutxienez". Eta nik erantzuten nion: "nik ez dut ez

kentzen ezta jartzen ere...". Pilota bat ona edo txarra izan den pilotariak daki, inork baino hobeki. Erabakiak hartu behar dituzu, eta une konkretuetan pilotari baten alde jokatu dutenek txistu egingo dizute eta bestearen aldekoek, aldiz, txalotu. Hori guztia ongi eramaten ikasi behar duzu.

## **Urte luze hauetan hamaika pasadizo izango dituzu kontatzeko.**

Asko... Behin, Olaztin, partida bat bukatu eta gizon bat gerturatu zitzaidan esateko nire erruagatik 20.000 pezeta galdu zituela. Tabernara joan eta kontu berdinarekin etorri zitzaidan, hurrengo tabernan ere... Koadrilan nengoen, eta uste dut egun hartan gizon hura etxera nahiko bero joan behar izan zela. Hainbeste urtetan denetik gertatu da. Profesionaletan 200 partidatik gora eginak izango ditut. Akta pila bat ditut jasoak. Gogoan dut ere Altsasuko Otadiko Kristo Deunako final ezaguna, Ruizen eta Olaizolaren artekoa, jubenilen mailakoa. Gizon batek lepotik heldu zidan eta Olaizola bera etorri zen barkamena eskatzera, aita zela eta oso urduri jarri zela esanez.

## **Zein pilotari izan duzu gustuko?**

Pilotari ia guztiekin harreman ona dut. Niri guztiak gustatzen zaizkit; berdin zait nork irabazi, onenak irabazi dezala. Olaizolak eta Irujok garai bat itxi zuten. Ni Irujozalea nintzen gehiago, baina ez nion besteari ezer kentzen. Bati 9 eta besteari 9,5 ematen diot. Olaizolak sekulako burua izan du pilotan aritzeko, Juanek ere, eta Oinatz beste biek eklipsatu zuten. Pilotari oso handiak egon izan dira eta daude. Badirudi irabazten duena dela onena, baina badaude titulurik ez dutenak eta tituluak dituztenak bezain onak direnak.

## **Orain maila paretsuagoa dute pilotariak.**

Alde horretatik hobeto dago gauza. Zein da hobe, Ezkurdia edo Altuna? Lehen esan dugun bezala, bati 9 eta besteari 9,5, diferentzia ez da horren handia. Altunari, 23 urterekin, izugarri exijitzen diote, badu tartea akatsak fintzeko. Ezkurdiak ere hala egin

## **"PROFESIONALETAKO PRESIO GIRO HORRI NOLA EGIN OTE NION AURRE ESAN IZAN DIDATE ASKOTAN"**

zuen eta iaz egin zuen eztanda, 26-27 urterekin. Prentsarekin jokatzen ere ikasi beharra dute, prentsak igo edo jaitsi ahal zaituelako. Presio horrekin jokatzen jakin behar dute. Egun, buruz buruko txapelduna Irribarria da, baina nik uste dut Altuna eta Ezkurdia bere gainetik daudela. Txapelduna urte osoan izan behar da, ez soilik egun batean.

## **Aurten epaile lanak utziko dituzu. Guztiz?**

Duela 6 urte Nafarroako federazioari esan nion utzi nahi nuela. Jende gaztea sartu behar dela; has daitezela, eta partidak epaitzearen poderioz jarriko direla, gu bezala. Baina badakizu: "segi beste urte bat, ez dugu jenderik..." eta horrela 6 urte eman ditut. Kosta egiten zait, ez pentsa, baina pausua eman beharra dut, bestela bizitza guztian egongo naiz epaile. Egia da, bestalde, epaile izan nahi duen jenderik ez dagoela. Duela 2 hilabete Nafarroan pilota-epaile izateko ikastaroak antolatu zituzten, eta uste dut guztira 9 aurkeztu zirela. Federazioak pilota klubei eskatu behar lieke gutxiarik klubaren barruan epailearen bat izatea, zeren bestela epaile berberak gaude beti. Baina arazoa da beti berdinak gaudela ez dagoelako epaile gehiago.

## **Hortaz, zaila izango duzu...**

Ez badut modu arradikalean uzten, guztiz uzten, esango didate: "zergatik ez zoaz Etxarrira, eskura duzula, partida hau epaitzera?" Eta aurrekoa egin baduzu, herrian esango dizute: "Etxarrira joan bazara nola ez duzu Altsasukoa egingo?" Eta horrela ez nuke sekula bukatuko. Hoberena epaile-karneta ez izatea da. Orain arte urtero berri du, baina banago gehiago ez ateratzekotan eta esateko "jada ez naiz epailea, bukatu da". Federazioan ere ez dute argi utziko dudarik, baina aurten akabo. Bizitza zikloak dira, eta nik ziklo bat bete dut. 66 urte ditut eta gehiago nekaten zara. Pena ematen dit, baina beste gauza batzuk egiteko gogoak dauzkate. 4 biloba ditut eta horietako bati, 4 urterekin, pilota izugarri gustatzen zaio. "Aitona, goazen frontoira" esaten dit, eta ni gustura berarekin.

## **Ederki merezita duzu zilarrezko domina.**

Beno... (kar, kar). Nire lanarekin kunplitu dut, guztiekin gustura egon naiz, ez dut arazorik inorekin eta zikloa bukatu da.



Pello Ruiz Vignemalen, gustukoen duen mendian. UTZITAKOA

# "Gustuko duguna egitea saritu dute: ba gustura"

**PELLO RUIZ BORDEGARAI** SAKANAKO MENDIZALEAK TALDEKO PRESIDENTEA Nafarroako Gobernuaren 2019ko Kirol Merituari Zilarrezko Domina, 50 urte baino gehiagotan mendizaletasuna sustatzeagatik

**Maidar Betelu Ganboa** LAKUNTZA  
**Nola hartu duzu 2019ko Kirol Merituari Zilarrezko Domina?**

Oso gustura, pozik; ez duzu inoiz pentsatzen horrelako gauza bat inoiz etorriko denik. Gustatzen zaigun kirola egin dugu eta meritua dela esaten dute... ba gustura. Beste mendizale batzuk ere aurretik jaso izan dute domina; iaz Peio Alzuetak, esaterako, hil ondoren eman zioten senitartekoei, gero Miguel Angel Ulaiar mendizaleak ere... Sakanako Mendizaleak taldeak ere sari bat jaso zuen Nafarroako Gobernuaren eskutik, 1992an, euskara lantzeagatik.

**Saria eman dizute 50 urte baino gehiago daramatzazulako Sakanako mendizaletasuna sustatzen eta antolatzen. Horrenbeste urte?**

Bai. Jaiotzez Lemoakoa naiz, baina 18 urte nituela etorri nintzen Lakuntzara, lanera. Berehala Lakuntzako Lagun Artea futbol taldean hasi nintzen jokatzeko. Ni astero Beriainera igotzen nintzen, ez zelako posible autoarekin puntaraino igotzea autorik ez zegoelako. Lakuntzako lagu-

nekin mendira joaten hasi ginen, gero Altsasuko batzuekin elkartzen hasi ginen, horrela hasi ginen mendian.

**Berez ez zenuten mendi talderik orduan. Zein klubekin zeundeten federatuta?**

Lehenengo federatu nintzen tokia izan zen Anaitasuna, Iruñean. Otxoa, Barragan eta Altsasuko mendizale lagun haiek Iruñekoekin ibiltzen ziren asko eta horregatik haiekin federatu ginen. Gero Irurtzungo Iratxon federatu nintzen, beranduago Etxarri Aranazko Udaberrin, eta egun Zabalarren nago federatuta, Lakuntzako taldean.

**Noiz sortu zen Sakanako Mendizaleak taldea?**

Mendian koadrilaka edo klubeka ibiltzen ginen orduan, bakoitza

**"SAKANAKO MENDIZALEAK-EKO MENDI IRTEETARARA 30-35 LAGUN JOATEN GARA HILERO"**

bere aldetik. Kotxean joaten ginen eta mendira igo eta jaitsi toki berdinetik egin behar genuen, kotxea hartzeko. Autobusak leku batean uzten zaitu, mendira igo eta beste bailara batera jaitsi zaitezke. Eta pentsatu genuen polita litzatekeela hilean behin Sakanako autobus bat ateratzea, mendi zeharkaldiak egiteko. Sakanako mendi klubak bildu eta horrela sortu zen Sakanako Mendizaleak taldea. Lehenengo autobusa 1985ean atera genuen, abenduan. 34 urte egingo ditu taldeak abenduan.

**Hortaz, klub talde ezberdinen arteko koordinakundea da Sakanako Mendizaleak taldea.**

Bai. Urtero egiten dugu bilera bat hurrengo urteko egutegia prestatzeko. Zein mendi edo zeharkaldi egingo ditugun, zein datetan, nork hartu behar dituen ardurak eta beste zehazten dugu. Aurtengoa larunbatean egingo dugu, azaroaren 30ean, Lakuntzako Pertza elkartean. Urteko balantzea egingo dugu, 2020ko egutegia prestatu... Nafarroako

Gobernutik diru-laguntza txiki bat jasotzen dugu eta horretarako memoria, aurrekontuak eta beste aurkeztu behar ditugu.

**Zu Sakanako Mendizaleak taldeko presidente izan zara, ezta Pello?**

Bai, eta segitzen dut. Juntan 20-21 urte daramatzat eta presidenten 18 urte. Badakizu, lan eta buruhausteak dituenek, inork ez du nahi. Noizbehinka kargua mahai gainean jartzen dut ea nork hartzen duen, baina esaten didate: "zuk ongi egiten duzu... segi aurrera". Eta tira...

**Hortaz, zure taldekideen konfiantza osoa duzu...**

Bai (kar, kar...) Primeran darماغu. Komunikazio gehienak whatsapppe egiten ditugu, euskaraz eta gaztelaraz, eta hor ibiltzen gara.

**Zer moduz irteerak? Talde majoa zaudete?**

Autobusa ateratzeko 20 pertsonako minimoa bete behar dugu, eta gehienetan hortik gora gaudu. Duela bi hilabete 60 kide joan ginen Pello Alzuetari Arangoitin egin genion omenaldira. Normalean 25-35 inguru joaten gara, eguraldiaren arabera.

**Duela 30-45 urte, Lakuntzan, haur txikiekin kanpaldiak egiten zenituzten. Zuendako ardura handia zen, ezta?**

Nik orain pentsatzen dut ez ote geunden pixkat erotuta. Orain ikusten diren gauzekin, igual kartzelan egongo nintzateke (kar, kar...). Zenbat haur eraman ditudan mendira, guraso gabe. Bateonbat etortzen zen laguntzera baina igual 10-14 haur hartu eta Pirinioetara, Belaguara... joaten ginen. Orduan kanpinik ere ez zegoen. Belaguara joateko Lakuntzako udaletxetik Izabako udaletxera eskatzen genuen baimena, eta baimena jasotzen genuen, denda jartzeko. Oso ongi pasatzen genuen. Izabatik Linza aldera, Belabarze bailaran egoten ginen. Hiru Erregeen Mahaia (2.446 m), Ezkaurre (2.045 m) eta mendi horiek egiten genituen haur koxkorrekin. Eta tarea zuten mendiak ziren, eh?

**Eta ongi ibiltzen ziren haurrak? Haurrak koadrilan doazenean ongi moldatzen dira, ez dute inor**

**"ALDAKETA EGON DA. GUK MENDIA BIZITZEKO ETA ULERTZEKO BESTE MODU BAT DUGU"**

behar. Gurasoekin baino hobe ibiltzen dira. Gu egoten ginen zaintzaile moduan, baina beraien artean moldatzen ziren. Tarteka negarren bat egiten zuten, baina problemarik gabe. Santa Marinaran, Aralarren, Adi azpian... kanpaldi asko egin ditugu. Nire alabekin batera inguratzen zirenak, denak, hartzen nituen.

**Zein da igo duzun mendirik altuena?** Mulhacem (3.482 m), Sierra Nevada.

**Eta gustokoena duzuna?**

Politena niretzat Vignemale da (3.298 m). Pirinioetan dago, Lourdesetik joanda. Igoera Gavarnietik eginda bikaina da. Glaziar elegante batzuk ditu, harkaitza bezain gogorrek dira.

**Hara bueltatuko zara?**

Uff.. Urte asko ditut eta hauspoa txikitzen ari da (kar, kar...). Aldaka ebakuntzatik ongi osatu naiz, minik ez dut eta mendira joaten naiz, astean pare bat aldiz eta autobuseko irteerekin, baina mantsoago, eh? 72 urte egin behar ditut hemendik hilabete pare batera eta ez dakit noiz arte jarraituko dugun martxa hau.

**Abenduan zita garrantzitsua duzue mendizaleek Aralarren, Mendigoizale Eguna, aurten abenduaren 22an izanen dena.**

Iruñekoak hasi ziren antolatzen, mendizale batzuk hil zirelako eta omenaldia egiteko. Eta errotu zen, eta urtero goaz mendi klubetatik. Meza, auzatea eta musika egoten da eta aspaldiko lagun eta ezagunekin egoten gara. Beteranoak gara gehienak, gazteak ez dira sartzen horrenbeste egun eta kontu hauetan.

**Gazteak mendian bere kabuz ibiltzen dira gehiago.**

Aldaketa egon da. Guk mendia bizitzeko eta ulertzeko beste martxa bat dugu eta genuen, lasaiagoa. Ildo honetan, Mankomunitateak Monterapia izeneko saioa antolatu du Lakuntzan.

**Bai, abenduaren 14an izango da, goizeko 10:00etan, Lakuntzako kultur etxean, Monterapia hitzaldia eta mendi buelta...**

Juanjo Garbizu mendizaleak liburu bat idatzi du "Monterapia" izeneko, eta liburu aurreztuko du. Finean, betiko mendigoizaleen filosofia aldarrikatzen du. Han bilduko gara eta nahi duena gerturatu dadila, polita izango da. Ondoren paseoa egingo dugu.

**50 urte baino gehiago mendian Pello; segi zaletasunaz gozatzen! Milesker! Oroigarria bistan jarri beharko dugu, toki polit batean!**



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Hitzetarik haratago

Gure iraganeko historiaren zertzelada bat gogora ekarriko dut, gutxi ezagutzen dena. Al Andaluso omeiarren garaiko "Muqtabis" kronikan jasotzen denez, 859. urtean Hasting eta Björn gudalburuen aginduetara bikingoak Iruñera ailegatuta (edo Arga ibaitik, edo Mundakatik sartuta), suntsitu eta kiskali egin zuten, euskaldun asko akabatuz. Orduko Errege Gartzia Enekoitz preso hartu zuten, eta urrezko 70.000 txanpon ordaindu behar izan zituen libre gelditzeko. Garai hartan, bikingoek hainbat erasoaldi egin zituzten Europako kostalde guztietan, beldurraren eta izuaren izakiak bailiran, modu basatian hiritarrak akabatuz eta arpilaketa eginez. Horrela gelditu dira guztion iruditerian kasko adardunetz apaindutako ile horiak.

Denboran jauzia eginez, berriki, Danimarkako hiriburua Kopenhagen egun batzuk pasatzeko aukera izan dut eta, jakina, ez ditut daniarrak halako kasko adardunetz jantzita harrapatu. Baina, bai ohartu naiz lurralde hezea eta iluna dela. Bestalde, pertsona bezala, fisikoki, handiak eta zurbilak, eta, nortasunez, iruditu zait izakera hotzekoak eta gogorak direla. Horrexegatik, deigarria egin zait munduko herrialdeetako jenderik zorientzuen bezala azaltzen direla. Hori horrela izateko, jakin dut gizarte kohesionatua dutela. Hezkuntza sistema publiko indartsua dute eta goi-ikasleak burutzeko ikasleek "soldata" jasotzen dute. Osasun arlo sendoa dute. Enpresa indartsuetan aritzen dira,

## BADIRA EREDU ERREALAK GAUZAK EGOKI EGITEKO ETA HELBURU ARGIAK LORTZEKO

soldata onak irabazita. Ez dute ia langabeziarik. Familia kontuetan, haurrak hazteko erraztasun, malgutasun eta laguntza handia dute. Ingurumenaren eta gizartearen iraunkortasun kontzeptuak sendo lantzen dituzte. Politikariengan sinesten dute, iruzur eta ustelkeriarik ez baitago. Eta, horrela, makina bat kontu gehiago.

Gurera etorrita, Nafarroan eta Estatuan gobernu "aurrerakoiak" eratu nahi dituztela-eta, fikziozko teoria politikoak alde batera utzita, badira eredu errealak gauzak egoki egiteko eta helburu argiak lortzeko. Izan ere, gauzak modu batera edo bestera egin, aldea dago!!!

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Ospakizun eskaseko azaroa

#### ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Black Friday! Eta mundua bukatzera balihoa bezala, aukerarik ederrenaren bila denak.

Ba al dakigu ordea Black Fridayren atzean zer ezkututzen den? Historia tristea oso. 1904an Ameriketako Estatu Batuetan sal-erosketa. Ostiraletan (Friday) eta azaroko azken ostiralean, esklabu "beltzak" (black) salduak izaten ziren behe-erapenak eta guzti, ekonomia sustatzeko. Esklabuen salmenta ospatzen dugu, beraz.

Gaur egun Libian gertatzen den bezala, egun zehatzik gabe, noiz-nahi saltzen dira esklabuak, herriko plazan ikusgai jarrita. Edo-

ta gurera lanera etorritako makina bat pertsona migratuek bizitzen dituzten esklabutza egoerak -bukatzeko ez diren lan jardunaldiak, baldintza zein soldata eskasak, gehiegikeriak, babesik ez, kontraturik gabeko lanak, etengabeko mehatxuak...-

Azaroak 20: haurren eskubideen nazioarteko eguna. Bai: hezkuntza, osasuna, babesa, berdintasuna, elikadura, etxebizitza, maitatua izateko eskubidea, arreta bereziak jasotzeko, izena eta nazionalitatea izateko, abandonatuta eta lanean esplotatuak ez izateko eskubidea, jolasteko eskubidea... Hori gutxi balitz, eta ingurune hurbilean, VOXek

ekidin egin du haurren eskubideen aldeko ituna irakurtzea Murtzian. Eta badirudi antzeko zer edo zer egin nahian dabilela azaroaren 25ari begira.

Azaroak 25: genero indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna. Aurten dagoeneko 51 emakume erahilak, estatu espainiarrean soilik. Auskalo zenbat munduan zehar.

Zenbat eskubide urratzen diren eta ditugun munduan zehar!

Zein motatako etorkizuna, planeta eta gizartea uzten ari gara txikienei? Etorkizuneko helduak direnei? Nola buelta eman egoera honi? Sor dezagun giza eskubideak, elkartasuna, berdintasuna, ekologia, eta aniztasuna merkealdian sekula gehiago jarriko ez den Black Friday, edo azaroa edota MUNDUA.

Eta orduan bai ospakizuna.



BAZTERRETIK

EDURNE LARRAZA MENDILUZE

## 2. ekarpena: atea ireki

Kaixo! Gutxi batzuk adierazi didate aurreko buru-haustearikiko interesa, baina ekarpen batetik bestera denbora asko pasatzen da. Horregatik, oraingoan erantzuna bakarrik emanango dut eta hurrengorako beste metodoren bat pentsatuko dut.

Ea ba.

Ongipasa eskolako pasabidean 5 ate daude. Ikasleek ate guztiak ireki behar dituzte. Hori bai, atea irekita egonez gero, itxi eta hurrengora joan behar dute, eta itxita egonez gero, ireki eta gela barruan itxoin behar dute.

Zenbatgarren ikasleari dagokio ate guztiak irekitzea?

Ate bakoitza digitu batez irudikatzen badugu 0 balioa eman

diezaiokegu itxita dagoen ateari eta 1 balioa irekita dagoen ateari.



Hasieran denak itxita daude, honela: 0000. Demagun ikasleak eskuinaldetik datozela.

1. ikasleak 1. atea itxita topatuko du, zabaldu eta gela barruan sartuko da. Ateak honela geratuko dira: 00001

Hurrengoak 1. atea itxi egingo du eta bigarrena itxita dagoenez zabaldu eta barrura sartuko da: 00010

3. ikasleak 1. atea itxita topatuko du. Zabaldu eta barruan sartuko da: 00011.

4. ikasleak lehenengo bi atea itxiko ditu eta hirugarrena ireki eta gela barrura sartuko da: 00100.

Bada, holaxe kontatzen dute konputagailuek, bitarrez. Sistema posizional bat da. Hamartarrean zutabe bakoitzean 10 digitu erabil daitezke eta horregatik zutabeetan ezkererantz egin ahala x10 egiten da. Bitarrean, ordea, zutabe bakoitzean 2 digitu baino ezin dira jarri eta horregatik x2 egiten da.

Ate guztiak zabalik daudenean, guztietan batekoa izango dugu, beraz: 1+2+4+8+16=31. ikasleak irekiko ditu ate guztiak.

Ariketaren emaitza [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)-eko Komunitate sailean publikatu du Edurne Larrazak.

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

María Luisa Zelaia

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

#### LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

#### Maketzailea:

Irene Trece Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

# LHtik eguberri saskiak banatuko dituzte

Pedagogia proiektuan Sakana Lanbide Heziketa institutuko Merkataritza Zerbitzuko 1. eta 2. mailako ikasleak eta irakasleak, Belardi elkarte eta Sakanako Garapen Agentzia ari dira elkarrekin. Nerea Viana teknikariak eman dizkigu azalpenak

SAKANA

## Zertan datza proiektu pedagogikoa?

Sakana Lanbide Heziketa (LH) institutuko Merkataritza Zerbitzuko ikasleekin eginen dugu. Ikusi genuen ikasgai batzuk jorratzeko modu egokiagoa zela proiektu praktikoa baten bidez. Gauza da bertako ekoizleen produktuez osatutako eguberrieta-ko saskiak diseinatzea, prestatzea eta banatzea. Eguberrietan udal eta enpresa askok saskiak banatzen dituzte eta pentsatu genuen interesgarria izanen litzatekeela hor irizpide batzuk kontuan izatea: bertako produktuak izatea, LHko ikasleak bustitzea.

## Ikasleei zer dagokie egitea?

Eskaerak nola kudeatu, hornitzaileekin harremanetan jarri eta eskaerak egin, bezeroari arreta egin, marketing pixka bat eta komunikazioa. Guk haiekin saskiak prestatzeko prozesu guztia nola egin beharko litzatekeen lantzen dugu modu praktikoa batean. Aurrena, zare horiek nola diseinatuko ditugu? Zer prezio jarriko diegu? Zer produktuz beteko ditugu? Zein izanen dira kostuak? Zein diru-sarrerak? Zabaltzeko nola eginen dugu marketing kanpaina? Kartela diseinatu, e-posta bidezko bidalketa, eskaerak kudeatu beharko dituzte, hornitzaileei produktuak eskatu beharko zaizkie. Ehun zare eskatzen badituzte ehun gazta, txistorra eta beste behar dira. Hornitzaileak Sakanako ekoizle txikiak dira, nekazari eta abeltzainak. Erlazio zuzen hori ere lantzen da eta lehen sektorea ezagutzeko modua ere bada. Azkenik saskiak prestatu eta banatuko dituzte. Bitartean bezeroei arreta eskaini behar bazaie, edo kontaktuan egon behar badira, ikasleen kontu izanen da.

## Zergatik ematen diozue garrantzia kontsumo arduratsuen gaiari?

Ikasleendako oso proiektu hezigarria da. Baina guri aukera



LHko irakasleak Belardiko eta garapen agentziako ordezkariekin. SGA

## JOAN DEN URTEAN 100 SASKI BANATU ZITUZTEN ETA AURTEN 200 BANATZEA DA ERRONKA

ematen digu, zeharka, lantzeko: lurraldekotasuna, kontsumo arduratsua edo ekonomia sozial eta eraldatzailearen pintzelada batzuk, elikadura burujabetza... Gai horiek lantzea, prestakuntza eta hezkuntza balore horietan kokatzea oso garrantzitsua da. Azken finean, etorkizuneko merkataria eta biztanleak izanen dira. Sakanan bizi garen heinean lurraldean kokatzea oso garrantzitsua da. Belardiko artzain batekin joan ginen eta hitzaldia izan zuten. Ustiategi bat bisitatu dute ikasleek, zareetan jarri dituzten produktu horiek nondik datozen ikusteko. Zeinek egiten ditu? Zein onura du guztiondako? **Zein produktu izanen dira saskietan?** Oraindik ez dugu guztiz itxita zarean izanen diren produktuak. Sakanan artzaintza oso garrantzitsua da, beraz, pare bat gazta izanen dira (naturala, ketua,

gazta zahar krema, gazta urdina...). Haragi ekoizleak ere baditugu. Joan den urtean euskal txerriz egindako txistorrak jarri genituen eta aurten txorizo ondua jarriko dugu. Agian pate poteren bat. Sagardoa, ardoa. Pentsatzen ari gara Nafarroan egindako artisau-garagardo ekologikoa sartzea. Marmeladaren bat. Yogurtak. Pastak. Eta gauza gehiago. Sakanako produktua sartzea da lehentasuna. Baina hemen bertan zerbait ez badugu, Nafarroakoa izatea. Ahalik eta gertukoena, agroekologia irizpideak lan egiten duen ekoizlea kontuan hartzen dugu. Agian, Nafarroako Bizilur elkartearekin lan eginen dugu, Belardiko asko han ere parte hartzen dutelako.

## Eskaerak nola egin daitezke?

Eskaera udaletara, Sakanako Mankomunitatera eta enpresa jakin batzuetara. Sare sozialetan ere zabalkunde emanen diogu. Oraindik ez dugu gaitasunik eta, horregatik, ezin dugu gehiegi ireki. Eskaerak e-postari erantzunez edo telefono batera hots eginez egin beharko dira. Ikasleak hori kudeatu dezaten saiaturako gara aurten. Epea abenduaren 12ra izanen da.



## Jarain aplikazioaren jendaurreko aurkezpena

Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuek elkarlanean sortu dute Jarain tresna (askatu, Burundako euskarari), www.jarain.app web gunea eta telefono mugikorretarako aplikazioa dena. Tresnak bi helburu ditu. Aurrena, indarkeria sufritu duten edo sufritzen ari diren emakumeendako informazioa, aholkularitza eta baliabideak eskuragarri jartzea; informazio hori emakume guztiei iristen zaiela bermatuz. Eta atzena, indarkeria matxistaren kontrako prebentzio eta sentsibilizazioa lantzea. Guztia klik edo dei bakarrarekin eskuratu daiteke.

Idoia Goikoetxea Gomez Altsasuko berdintasun teknikariak azaldu digunez, "lan-aurkezpena" izanen da abenduaren 11n, 18:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean eginen dute. Saioaz honako argibideak eman ditu: "indarkeria zer den azalduko dugu, norajo, jarreraren zergatia... Jarain aitzakia hartuta indarkeriari buruzko lan saio bat izanen da".

## Garapen agentziak proiektu kudeaketa arduraduna behar du

Sakanako Garapen Agentziak Plan Estrategikoan jasotako hainbat jardura aurrera eramateko proiektu kudeaketa arduraduna kontratatu nahi du. Eskatzen da unibertsitate ikasketak izatea, euskara eta ingeleza jakitea eta gidabaimena eta autoa izatea. Garapen agentziak lanaldi osoa eskaintzen du eta 28.173,34 euroko soldata gordina. Kontratuak 29 hilabeteko iraupena izanen du, luzatzeko aukera egonen litzateke proposatutako helburuak beteta. Jarrirako helburua litzateke Europa mailako proiektu bat lortzea kontratu epearen barruan. Eskabideak abenduaren 8ko 20:30ak arte aurkeztu daitezke.

Aldi berean, tresna mugikorretan deskargatzera eta erabiltzera gonbidatu du. Lan saio horrekin despidituko da azaroaren 25a dela eta ibarrean antolatutako ekitaldiak.

## Egitaraua

**Azaroaren 29, ostirala**  
Baratze kritikoa erakusketa Etxarri Aranazko plazako estalopean.

**17:00-20:30** Neska eta emakumezkoak ahalduzko autodefentsa feminista tailerra, Emagin. Etxarriko kultur etxean.

**Azaroak 30, larunbata**  
**17:30** "Libre zu, libre n" mikromusikala. Musas y fusas. Lakuntzako Kultur Etxea-n.

**19:30** "Volar" (Bertha Gaztelumendi, 2017, Euskal Herria) filma eta ondorengo foruma. Inma Mata dokumentaleko protagonistetako batekin solasaldia.

**Abenduak 11, asteazkena**  
**18:00** Jarain.app! Indarkeria matxistari gabeko Sakana aplikazioaren lan saio publikoa. Altsasuko Iortia Kultur gunean.

## Gizarte Zerbitzuetan ordezkapenentarako bi zerrenda osatu dira

Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak jakinarazi duenez, izangaien bi zerrenda sortu nahi ditu. Aurrena, gizarte-langile lanpostuetan sortzen diren beharrak betetzeko oposizio-lehiaketa bidez (B mailako postua). Atzena, berriz, administrari laguntzailearen lanpostuan ordezkapenak egiteko (D mailako postua). Bi kasuetan zerrenda 5 urtez edo beste deialdi bat egin bitartean izanen da indarrean. Baterako eta besterako eskabideak aurkezteko epea 18 egun naturalekoa da eta mankomunitatearen Altsasuko Garbitoki eraikineko bulegoan aurkeztu daitezke.



Estreinakoz manifestazioa egin zen azaroaren 25arekin.

## Emakumezkoak aske izateko bost oinarri zehaztu dituzte

Justizia feminista, ardurak hartuko dituzten gizonezkoak, beste segurtasun eredu bat, prebentzioa eta baliabideak

### ALTSASU

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunean Altsasun urtero kontzentrazioa egiten zen, eta jende mordoxka bat elkartzen zen protesta egitera udaletxe parean. Altsasuko mugimendu feministak ereindakotik jaso zuen astelehenean, estreinakoz azaroaren 25ean manifestazioa deitu eta 750 bat pertsonak bat egin baitzuten deialdiarekin. Eta garbi adierazi zuten: "nazkatuta gaude sistema heteropatriarkal kapitalistak sortzen digun biolentziaz. Egunero zapaltzen gaituen biolentzia honi aurre egiteko, gaur, berriro ere, autodefentsa feminista defendatzen dugu".

Altsasuko mugimendu feministako kideek manifestazioaren ibilbidean zehar gogorarazi zuten 2003 urteaz geroztik indarkeria matxistak Euskal Herrian 102 emakumezko eta 11 ume hil dituela. "Altsasun ere erasoak jasaten dituzten emakumezkoak daude; batzuk salaketa jartzen dute, beste batzuk ez, baina guztiei gure babesa eta elkartasuna eskaini behar diegu". Mugimenduko kideek "bestelako erasoak" salatu zituzten eta jakinarazi zuten azaroaren 25eko deialdirako jarritako kartelak eta pankartak kendu dituztela asteburuan.

### Aske izateko oinarriak

Mugimendu feminista altsasuarreko eledunek "justizia eredu birpentsatzea" exijitu zuen, "fokua erasotuen erreparazioan

eta babesean" jartzeko. "Justizia patriarkalari" sinbolikoki su eman zioten manifestazioan zehar. Horrekin batera, emakumezkoak aske izateko "konplizitate patriarkalarekin hautsi eta indarkeria matxistan duten erantzukizunez ohartzaren diren eta inguru hurbilean aldaketak egiten dituzten gizonezkoak" behar dira. Altsasuko mugimendu feministak gaineratu zuenez, "aske izateko ez dugu polizia behar".

Udalak hainbat poliziarekin sinatutako hitzarmenari buruzko argibideak exijitu zituen mugimendu feministak. "Gogorazi nahi dugu emakumezkoak ez garela erasotzaileak eta, hala ere, bizkarzainak eta bestelako polizia kontrol mekanismoak gure askatasuna mugatzen dute. Segurtasun eredu horrek ez gaitu aske sentiarazten, alderantziz, are gehiago biktimizatzen gaitu. Poliziak gorpuzten duen maskulinitate ereduak eta iraurarazten duen menderatze sistema berberak kolpaten gaitu emakumezkoak".

Asteleheneko manifestazioaren akaberan Altsasuko mugimendu feministako bozeramaileek "jendarte feminista lortzeko hezkuntzan eta profesionalen prestakuntzan inbertitzea" beharrezko jo zuten. Azkenik, dei bat luzatu zuten: "indarkeria jasaten dugun emakumezkoak doako, kalitatezko eta unibertsala den laguntza sozial, psikologiko eta legala behar dugu, salaketa judiziala jarri edo ez".



Uhartearrak emakumezkoen kontrako indarkeriaren aurka. UTZITAKOA

## Kontzentrazio gehiago

Azaroaren 25arekin batera aldarri feministak, atzera ere, kalera atera ziren. Uharte Arakilen 30 bat pertsona elkartu ziren kontzentrazioan. Irurtzunen, Arruazun eta Altsasu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuan ere kontzentrazioak izan ziren.

## Pentsiodunek hainbat mobilizazio deialdi egin dituzte

Pentsio duinen aldeko mugimenduak bere aldarrikapenak zabalteko udaletan mozioak aurkeztu ditu. Gutxieneko 1.080 euroko pentsioa eta lanbide arteko gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea, udalek bi aldarrikapen horiekin bat egitea nahi dute pentsiodunek. Bide batez, mobilizazio egutegiaren berri eman dute ere. Astelehenean 12:00etan, Altsasuko udaletxe parean kontzentratzen segituko dute. Horrekin batera, Abenduaren 12an eta 16an Iruñeko eta Gasteizko Parlamentuen ateetara eramanen dituzte euren aldarrikapenak. Azkenik, gogorarazi dute ilbeltzaren 30erako greba orokorra deituta dagoela.

emakumeenganako indarkeriaren  
aurkako nazioarteko eguna

### Azaroak 30

Lakuntzako kultur etxean

17:30ean Libre zu, libre ni, mikromusikala

19:30ean Zine forum. Volar. Inma Mata  
protagonistetako batekin hizketaldia



Mank  
s a k a n a

# Iberica de Suspensionsesk mendeurrena bete du

Langileen senideek euren gertukoan lantokia barrutik ezagutzeko aukera izan zuten larunbat goizean. Autoendako egonkortze-barrak nola egiten diren ikusteko aukera izan zuten bisitariek. Mendeurrenaren oroigarri gisa zuhaitza landatu zuten

## ALTSASU

Altsasuarrek aurreko izenez, Eguzkia, ezagutzen dute Iberica de Suspensions SA (Issa) enpresa. Aurten 100 urte bete ditu enpresak eta hori ospatzeko ate irekien jardunaldia antolatu zuten. Langileen senideek haiek zein lan egiten duten bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten larunbat goizean. Denak batera ezin hartu eta ordu laurdenero talde bat sartu zen lantegira eta langile batek gidari lanak egin zituen.

Kalitate arloan lan egiten duen Iñigo Bidaurrek esan digunez, "konpetentzia oso handia da, baina gure lekua dugu". Gaur egun ia auto marka guztiendako ekoizten dute Altsasan: Nissan, Toyota, Suzuki, EPPSA, Renault, Mercedes, Missubishi eta Volkswagen. "56 erreferentzia ditugu" zehaztu digu Bidaurrek: "autoa diseinatzerakoan azken gauzetako bat da egonkortze barra, horregatik hartzen ditu halako forma bereziak". Jakinarazi digunez, ilbeltzetik aurrera BMW-rekin proiektu bat egiten dute. Bidaurrek esan digunez, "bezero batzuk etorri eta besteak joaten dira. Garrantzitsuena da proiektu berriak izatea. Gainera, hainbeste bezerorekin lan egiten dugunez, denetatik ikasten duzu".



170 langilek 3.800.000 egonkortze-barra egin zituzten 2018an.

Altsasuko lantegia 1980tik enpresen arteko aliantza estrategikoko batek (joint venture) kudeatzen du. Gaur egun Japoniako eta Italiako bi multinazionalak erdibana dute jabetza. "Haien artean konpetentzia dira. Horrek gauzak egiteko independentzia pixka bat ematen digu. Eta bi aldeetatik bezeroak topatzeko aukera ere". Bidaurrek zehaztu digunez, "japoniarrek garrantzia handia ematen diote industriari, kalitateari eta tekniko izateari. Italiarrek, berriz, garrantzia gehiago ematen dioten irabaziei".

Ekonomiaren motelaldiaz galdetuta, Bidaurrek azaldu digunez, "gure sektorea beti aurretik joaten da. Nafarroan enplegu erregulazio espediente batean sartu ginen lehenak agian gu izan ginen, 2008an. Gainontzekoek krisialdia ondoren sumatu zuten. Aldakorra da. Azken bi hilabeteetako datuak ongi daude zeren salmenta eta esportazio kopuruak igo egin dira. Baina egia da AEBren eta Txinaren arteko erlazioa eta auto elektrikoaren garapenak jendeak autoa erostea galgatzen du".

+www.guaixe.eus



Langileak manifestazioan, lantegi parean. UZTITAKOA

## "Soldaten parekatzea bermatuko duen akordioa nahi dugu"

Soldata arrakala berdintzea eskatzeko, Hydron, abenduan beste 32 orduko lanuzteak egiten dituzte

### IRURTZUN

Lan bera, soldata bera. Aldarrikapen hori duen pankartari zortzigarren egunez eutsi zioten atzo Hydroko hainbat langilek. Enpresako soldatak parekatzeko mobilizatzen ziren 8. eguna zen atzokoa. Aurreko asteetan lan txanda bakoitzeko orduko geldialdiak egin bazituzten, atzoko egun osoko lanuztea zuten deituta. Greba batzordeak eta borrokan dauden langileek zuzendaritzari lau eskakizun egin dizkiote. Aurrena, "soldaten parekatze progresiboa egitea. Gaur egungo % 25eko soldata arrakala % 12,5era jaitea, abiapuntu gisa".

Horrekin batera, zuzendaritzari eskatu diote "azken urtean sortu diren kontzeptu ez kontsolidagarriak kontsolidagarri egitea". Aldi berean, protestan dauden langileek eskatu dute "kategoria egiten ditugun funtzioen

arabera aitortzea". Atzeneko eskaera da "greban aritu diren langileen kontra jazarpenik ez egotea". Soldata arrakalaren kontrako borrokara batzeko dei egin diete CCOOri eta UGTri.

LABeko ordezkari Toño Ollakarizketa Elizondok azaldu digunez, lan bera egiten duten lankideen arteko soldata desberdintasuna urtean 5.000 edo 6.000 eurokoa da. Grebalariek jakinarazi dutenez, "desberdintasuna jasangaitza da. Hilabetean 1.200 eurora iristen ez diren lankideak ditugu, soldatak parekatuta egonen balira 500 euro gehiago kobratuko lituzkete hilabetero".

Azaldu digutenez, "2014. urte-tik hona, soldatak parekatu behar ziren urtetik, enpresak 20 milioi euro inguruko irabaziak izan ditu. 2018ko balantzean (dugun azkena) enpresak 5,260 milioiko irabaziak izan ditu. Gure aldarrikapenak horren % 1 dira".

DATORREN ASTEAN  
EUSKALERRIA  
IRRATIKO  
GOIZEKO SAIOA

8:30-11:00

107.3 FM  
**beleixe**

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE  
ENTZUTEKO  
GUAIXE.EUS

ABENDUAREN 9AN  
EGUN ON BUELTAN

10:00 Prentsa eta eguraldia  
10:15 Bateti bestia  
10:20 Eguneko albisteak  
10:45 Hizketan  
11:15 Sarea: Aralar eta  
Karrape irratikoekin  
11:55 Agurra



## Eraikinak zaharberitzeko laguntza ordenantza

Altsasuko Udalak hura onartu aurretik kontsulta publikorako epea zabaldu zuen astelehenean

### ALTSASU

Altsasuko Udaleko Hirigintza Batzordeak zaharberitzeko laguntzei buruzko ordenantzaren zirriborroa onartu du. Ordenantzaren bidez Altsasuko Udalak etxebizitza-blokeen inguratzaile termikoak hobetzea sustatu nahi du. Izan ere, hori egiten duten eraikinetako energia eraginkortasuna nabarmen hobetzen da eta, ondorioz, berokuntza sistemako faktura jaitsi. Blokeek inguratzaile termiko berria izateak aldi berean ekartzen du haien kanpo itxura ere asko hobetzea. Araudi berriarekin udalak, gainera, etxebizitza-blokeetako arkitektura oztopoak kentzea bultzatu nahi du.

Ordenantza zirriborroan jasoz denez, lan horietarako dirulaguntzak eskuratzeko eraikinak zaharberritu beharreko eremuetan egoteaz aparte, esku-hartze orokorreko plana onetsita eduki behar dute. Udalak bi laguntza mota emateko aukera aurreikusi ditu: eraikinaren inguratzaile termiko osoa berritzea eta inguratzailearekin batera arkitektura trabak kentzeko lanak egitea eraikinean. Bi kasuetan udalak aurrekontuaren % 4ko laguntza emanen du. Baina, udaletik gaztigatu dutenez, eraikin bat lehenatasunez zaharberritu beharreko eremu batean eta dagokion esku-hartze orokorreko planean sartzeko berekin dakar Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza % 40tik % 50era pasatzea.

Altsasuko Udalak lehenatasunez zaharberritu beharreko eremu batean sartu den etxebizitza-eremu bakoitzerako onartuko du esku-hartze orokorreko plana, eremu horren eraikuntza-ezagarrri berezietan oinarrituta. Behin ordenantza onartuta esku-hartze orokorreko aurreneko plana Zumalakarregi plaza eta inguruko kaleak hartuko ditu. Ondoren gehiago etorriko dira.



## Izurdiaga espaloia mustutzear

Autopista azpiko zubitik Irurtzango mugara arte espaloia egiteko lanak aste honetan despedituko dira. 400 bat metro luze eta 1,8 metro zabal dituen espaloia egiten ari dira NA 7000 errepide bazterrean. Estolderia, beheko tentsiorako sareak, telekomunikaziokoak eta argiteria publikoak eramateko kanalizazioak eta ur horniketara sarea, saneamendu sarea egin dira.



NAFARROAKO GOIBERNUA

## Ur hornidurarako b plana prest

Irurtzundarrek Iribasko iturburuko ura edaten dute. Ur sarea Larraun ibaiaren azpitik pasatzen da. Han hoditeriarekin arazoren bat izanez gero, konponbidea zaila da. Hori kontuan izanik, Plazaolako bide berderako Kaxarnan jarri duten zubiak ur-hornidura sareko hoditeria hartzeko aukera du, Sakanako Mankomunitateak hala proposatu eta gero.

## Desfibriladorea, Lakuntzako plazaren erdian jarrita

Datuek diotenez, trebatutako pertsonen bihotzekoa izan duten pertsonen % 75en bizitza salbatuko lukete desfibriladorea eskura izanda. Zer gerta ere, Lakuntzako Udalak plazan dagoen markesinan jarri zuen desfibriladorea udan. Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza alkateak azaldu digunez, "desfibriladorea geolokalizatuta dago. Norbaitek

hartzten badu zuzenean 112 larrialdi zerbitzura hots egiten du. Geolokalizatuta dagoenez, anbulantziak zuzenean autobus geltokira bidaltzen ditu". Geolokalizazioak lapurreta kasuan ere balioko lukeela gaztigatu digu Razkinek, "polizia jakinaren gainean jarriko baitu".

Hura jarrita, ikastaroa egin zen irailaren 28an. "El ABC que salva vidas" elkartekoek bihotz-biriketako bizkortzeari eta desfibriladorearen erabilerari buruzko argibideak eman zituzten.



Gida etxean jasotzeko garaia heldu da.

## Sakanako etxe guztietara iritsiko den gida

Sakanako Gida 8.500 etxebizitzetara iritsiko da hurrengo asteetan. [www.guaixe.eus/gida](http://www.guaixe.eus/gida) helbidean kontsulta daiteke

### SAKANA

Guaixe fundazioak seigarren urtez Sakanako Gida argitaratu du, ibarreko dendan, zerbitzuen, enpresen eta autonomoen informazio osatua eta eguneratuarekin. Sakanako eskaintzaren erakusleihio da gida bera. Gauzak erosteko ibarrean bertan nora jo daitekeen jakiteko modu azkar eta eroso da banatuko den gida komertziala. Produkturen bat edo zerbitzuren bat non eskatu jakin ahal izateko modua ematen du. Azken finean, Sakanako Gidak informazio praktikoa, egunerokoan baliagarria zaigun informazio hori ematen du.

Sakanako Gidan tokiko merkataritzaren aldarrikapena ere bada. Han agertzen diren zerbitzu eta establezimenduak bizirik dagoen ibarreko ekonomiaren lagina dira. Eta haiek zabalik egoteak esan nahi du gure herrietako kaleetan jendea dabilela, bertan kontsumitzen duela, herriak bizitza dutela.

### Etxean eta uneoro gainean

Aurki hasiko da Sakanako Gidaren etxez etxeko banaketa. Etxetara banatuko den paperezko bertsioa uneoro kontsultatzeko aukera izanen da [www.guaixe.eus/gida](http://www.guaixe.eus/gida) web orriaren bidez. Horrek aukera ematen du ordenagailuz edo telefono mugikor bidez uneoro kontsultatzeko. Han sartzen denak establezimenduak gremioka, herrika edo bilatzai-learen bidez opatzeko aukera izanen du. Interneten, gainera, establezimendu bakoitzak bere

orria du eta han helbidea, telefonoa, e-posta eta haren web orriaren berri dago. Mapa batean haren kokapenaren berri ematen da ere.

Guaixe fundazioak ekimen horretaz aparte, ibarreko ekonomia dinamizatzeko Beleixe-Guaixe txartela indarrean du 2012az geroztik. Fundazioaren babesle direnek (50 euro urtean) txartela jasoko dute eta harekin ibarreko hainbat establezimendutan abantailak lortzeko aukera izanen dute. Azken batean, Sakanan erosiz ibarra egin, lanpostuak mantentzen lagundu eta Sakana bizi baten alde egiten da.

### Harremanetarako

Sakanako Gidaren hurrengo edizioan edo orain Interneteko bertsioan sartu nahi dutenek 948 564 275 telefonora hots egin edo [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus) e-posta helbidera idatz dezakete.

*Olga Martínez de Lagrán*  
PSIKOLOGIAN DOKTOREA

Min kronikoaren tratamendu  
psikoemazionala  
Adierazteko tratamendua  
Ansietatea, depresioa,  
beldurak eta labrik

[olgamartlagran@yahoo.es](mailto:olgamartlagran@yahoo.es)  
**639 408 118**

# Urrunketak eragindako istripuak salatzeke deia

Gaur, 20:00etan, plazan. Asteburuan presoak espetxean bisitatzetik bueltan zetozen etxarriar batzuk istripua izan zuten. Presoak bisitatzera joan-etorrietan etxarriarrek aurten izandako bigarren istripua da

ETXARRI ARANATZ

Presoen Euskal Herriratzea eskatzeko kontzentrazioa egiten da Etxarri Aranazko plazan, 20:00etan. Gaurkoan senideek presoak bisitatzera doazenean errepidean bizi duten arriskua nabarmenduko dute. Izan ere, Villabonako espetxean (Asturias, 440 km) dagoen Olga Comes preso iruindarraren senide etxarriarrek dira istripua izan zutenak asteburuan. Aita eta bere 12 urteko semea dira ezbeharra izan zutenak. Bisitatik bueltan zetozela, ezbeharra Altuben (Araba) izan zuten: beraien furgonetan kurba batean irten zen eta, bazter babesarekin talka egin zuen. Han bertan beste bi istripu egon ziren euritearen ondorioz.

Euskal preso senideak biltzen dituen Etxerat elkarteak jakinarazi dutenez, "gidatzen emandako orduak arriskua handitzen dute halako bidai luzeetan. Lanetik irten ondoren errepidean jarri ziren lau orduko bidaiak egiteko, espetxe ondoan lo egin eta berriz kotxea hartu zuten hiru orduz etxera itzultzeko asmoz". Elkarteko kideek gaztigatu dutenez, Olga Comesen senide eta lagunak izan duten hirugarren istripua da asteburukoa. Etxeratekoek azaldu dutenez, "senideei ezarritako kondena eta



Presoen urrunketak eragiten dituzten istripuak salatzeke instalazioa. ARTXIBOA

dispertsioa mantentzea jasangaitza da eta egoera honekin amaitzea ezinbestekoa da. Senide eta lagunei ezarritako kondena amaiera jartzea, dispertsioak eragindako hildakoen aitortza lortzea eta preso guztiak Euskal Herrira ekartzea premiazkoa da, asteburuan gertatutako istripua bezalakoak inoiz gehiago gerta ez daitezten".

## Udala

Presoen senide etxarriarrek izandako istripuaren kontura, Etxarri Aranazko Udalak adie-

razpena onartu du. Lehenik, herritarrek deitutako mobilizazioetan parte hartzera gonbidatu ditu (bihar, 20:00etan, plazan). Horrekin batera, udalak dispertsio politikaren eta urruntzearen berehalako desaktibazioa eskatu du, senideak kaltetu eta oinaze a eransten baitie. Gogoratu du, gainera, presoak bisitatzera egindako joan-etorrietan 16 senide hil direla trafiko ezbeharretan. Azkenik, udalak pertsona guztiak Giza Eskubideen errespetua exijitu du.



Musikak tartea izan zuen aurkezpenean.

## Memoriaren hirugarren zatia partekatuta

Altsasuko Memoriak herriko historiaren bazterrean gelditutako gertaeren pasarte hiru garren bilduma, 1993tik gaur egunera artekoa, jendaurrean aurkeztu zuen larunbatean. Errepaso horretan aipatu zirenen artean honakoak daude, besteak beste: soldaduskaren kontrako intsumituen borroka (mugimenduko bi kide atera ziren oholtzara), Guaixe hilabetekariaren sorrera, Presoen alde plataforma eta 1993ko Nafarroa Oinez, emakumezkoek ospakizunetan eta herri ekitaldietan lortu zuen parte hartzearen normalizazioa, gaztetxearen 10. urteurrena, Bai Euskarari, Sakanan bizi eta lan kanpaina, Guardia Civilaren inguruan egin nahi izan zen eta debekatua izan zen erreferenduma, Udalbiltzari egindako jazarpena, Herria Eginez elkartearen itxiera, Erregaren Diskurtsoari, Espainiako Auzitegi Nazionalera deitutako pertsonak, erraustegiaren kontrako borroka, Ospa egunari eta Altsasuko auzia.

## Euskarazko ekitaldi sorta Irurtzunen abenduan

Irurtzunen euskara sustatzea eta ikustaraztea, bi helburu horiek ditu Aizpeak

IRURTZUN

Abenduko oporretan Irurtzunen herritar gehiago daudela baliatuta Aizpea, Irurtzango Euskaltzaleen Topaguneak Euskal Ekitaldiak antolatzen ditu. Ohi bezala, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek abiaraziko dute egitaraua Nafarroaren egunean, heldu den asteartean, 17:00etan, kiroldegian. *Bizi dantz*a ikuskizuna eskainiko dute. Sarrerak zazpi eurotan eskuratu daitezke dagoeneko Pikuxarren, Martxuetan, Estankoan eta Leitzako Maimurren. Euskal Ekitaldietan hutsik egiten ez duen beste hitzordua txangoa da. Baina Igartubeiti XVI. mendeko tolare baserria ezagutzeko bidaiak bertan behera gelditu da, nahikoa jende izena eman ez duelako. Horrekin batera, bertso afaria ere abenduko hitzorduak bat da. Uxue Alberdi eta Julio Soto ariko dira bertsoetan abenduaren 14an, 21:30etik aurrera, Iratxo elkartearen. Joan nahi dutenek abenduaren 8ra arte dute epea Pikuxarretik edo Martxuetatik pasatzeko. Aizpeak egitaraua ixteko kirol neurketa: Abenduaren 27an, ostiralean, 12:00etan, seme-alabak gurasoen kontra futboleko neurketa, kiroldegian. Eta euskaraz.

## Palestinari elkartasuna adierazteko deialdia

Gaur, 18:00etan, Baratzekobide plazan, nazioarteko elkartasun egunarekin bat eginez

GERTAERALEKUA XXX

Boikota, Desinbertsioak eta Zigorak (BDZ) Euskal Herriak eta Askapena erakunde nazionalistak Palestinarekiko elkartasun eguna antolatu dute. Eta munduan barna zabaldua dagoen

"Israelen kolonizazioari, apartheidari eta okupazioari erantzuna emateko: BDZ" gogoraraziko dute. Izan ere, Beasaingo CAF tren konpainiak Saphir eraikuntza enpresarekin batera Jerusalemgo tranbia egiteko lanak

eskuratu ditu 1.800 milioi euroren truke. Lantegiko enpresa batzordea kontratu horren kontra dago: "Palestinako lurretan legez kanpo eraikitako Israelgo koloniak lotzeko erabiliko da tranbia. Agintariak okupazio hori legez kotu eta iraunkortu nahi dute, biztanleei normalizatutako azpiegiturak eskainita. CAF ez da trenbide sistema huts baten hornitzailea izango: Palestinako herriaren aurkako politiken alderdi aktibo eta protagonista ere izango da".



Palestinarrak Altsasun izan ziren udan.

Egitaraua Arbizuko eta Zestoako alkateen adierazpenarekin abiatuko da Baratzekobide plazan, 18:00etan. Bi herriak Palestinako beste udalerriekin senidetuta daude. Herri palestinarren omenez aureskua dantzatuko da plazako olibondoaren ondoan. 18:30ean, tren makinaren ondoan. Palestinarren okupazioa nolakoa den azaltzen duen antzezpena izanen da. Hura bukatzean, tren makina eta olibondoa lotzeko giza-katea egingen da, 19:00etan. Despeditzeko auzatea izanen da.



**Mank**  
s a k a n a



# ITSASPEKO BIHOTZAK

Haur literaturaren bidez  
hezkidetza lantzeko aretoa


Abenduaren 2tik 19ra, Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.  
Astelehenetik ostiralera: 18:30-21:00

Ikuskizunak dauden larunbatetan: ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago.

Igandetan: 19:00-21:00

**FAMILIARTEKO SAIOA:** Abenduaren 12an 17:00etan

**Izen-ematea abenduaren 9a baino lehen:**  
[berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus)  
[euskara@sakana-mank.eus](mailto:euskara@sakana-mank.eus)





Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuaren jarduna babestu duen jendeak inguratzen du Begoña Zestau Baraibar teknikaria.

# Zurumurruen kontrako material berria

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak, "elkarbitza baikorrari" azpizana egiten dioten zurumurruen kontrako tresna berriak sortu eta sakandarren eskura jarri ditu

SAKANA

Urteko balorazioa egiteko bere lanean lagundu duten pertsonen inguratu zen Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua asteartean. Mank-eko Lakuntzako egoitzako batzar gelan izan ziren gizarte zerbitzuetakoak, irakasleak, guraso elkarteetakoak, Sakana Harrera Haranakoak, zerbitzuko batzordekoak, jubilatutako elkarteetakoak, jatorri anitzeko pertsonak eta zerbitzuan parte hartzen duen jende aktiboa. Anitzarteaneko teknikari Begoña Zestau Baraibarrek esan zuen "urtea oparoa eta emankorra" izan zela. Haiek emandako laguntzagatik eskerrak eman zi-

tuen, "zuek gabe bestela zerbitzuak ez bailuke egindako guztia egingen". Zestauk gogorarazi zuenez, "herritarren proposamenak dira zerbitzuak aurrera eramaten dituenak, proposatzaileekin elkarlanean".

Mank-eko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua duela 11 urte sortu zen Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntza bati esker. Krisialdiarekin laguntza desagertu zen, baina ibarreko erakundeak zerbitzuari eutsi egin zion. Eta aurten foru administrazioaren dirulaguntzak zerbitzura bueltatu dira, zehazki, Bakea, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarena. Haren bidez mun-

duko arrozen errezeta liburua, liburutegien bidez banatu diren liburu-markagailuak, elkarlaneko partxisa eta zurumurruen kontrako sei panel. "Jendeak eskatu ditzakeen baliabideak dira".

Zestauk azaldu digunez, "aurten zurumurruen inguruko sentsibilizazio kanpaina sakona egin dugu, gero eta gehiagora doazela nabari dugulako. Gero eta barneratuagoak daudela. Egiten duen kaltea konpontzea oso zaila da. Horrek elkarbitzari ez dio laguntzen: bestearekiko mesfidantza, ezagutza falta, neurri batean beldurra ere sortzen dute. Zerbitzuak bilatzen du sakandarren arteko elkarbi-

zitza ahalik eta baikorren izatea". Zurumurruek desmuntatzeko aurten "hamaika proposamen" atera ditu aurten zerbitzuak. *Zurumurru jasari, baloreak aterki* leloa zabaldu dute. Baloreak zerbitzuaren logotipoan agertzen diren lauak dira: aniztasuna, errespetua, diskriminaziorik eza eta berdintasuna.

## Elkarlaneko partxisa

Asteartean aurkeztu zen mahai jolas ez-lehiakorra da eta elkarlana sustatzen duena. Ohiko partxisaren forma du, baina jokalaria bakoitzaren irteera puntua besterik ez dago markatuta. Ez dago babes laukirik. Anitzartean logotipoaren lau koloreak ditu, kolore bakoitzak balio bat adierazten du. Zestauk azaldu digunez, "inork ez du inor ez jaten ez kaleratzen. Ez da harresirik, ez mugarik, ez trabarik. Fitxak aurrera edo atzera mugitu daitezke. Helburua baita kolore desberdinetako fitxak lauki berean bat egitea". Izan ere, topo egiten dutenean laukira iritsi den azkenak 20 lauki egingen ditu aurrera eta han zegoenak 10. "Fitxen baloreen topaketari esker, jokalaria guztiek aurrera egiten dute, irabazten dute".

Taula guztiari buelta eman eta gero etxera sartzerakoan *Baloreen batura, zurumurruen haustura* leloa opatuko dute. "Hori gauzatu dadin kolore bakoitzak lau zurumurru izanen ditu. Haie-tako bat esan behar du eta jokalariek zurumurrua desegiteko hausnartu egin beharko dute". Fitxan bertan hainbat pista izanen dira. "Zurumurrua desegintzat ematen denean eta fitxa etxera sartzean jokoan dauden fitxa guztiak 10 lauki aurreratu-ko dituzte". Mahai-jolasa hainbat tokitara banatuko da.

SAKANA

Pirinioen bi aldeetan garapen jasangarria sustatu nahi duten mugaz gaindiko elkarlan proiektuei finantza laguntza ematen die Poctefa programak. Sakanako Garapen Agentziak (SGA) eta Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak (ibarreko hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateen izenean) Iparraldeko CIASEkin, Centre Intercommunal d'Action Sociale Pays Basque, eta Euskadiko Agintzari gizarte ekimeneko kooperatibarekin batera partzuergoa osatu, proiektua aurkeztu eta dirulaguntza jaso berri dute. Lauren artean "mugaz gaindiko landa guneetako eskualdeen zahartze aktibo eta osasungarri baterako soluzio berritzaileen diseinu eta inplementazioa" egingen dute. "Hau da, beharrezko zerbitzuen esku-agarritasuna hobetzeko" proiektua landuko dute.

SGAko industria eta zerbitzu teknikari Odei Arregi Azpitartek azaldu digunez, Bertan: Sakanako Zahartze Aktiboaren Estrategia izena eman diote egitasmoari. Partzuergoak proiektua aurrera eramateko 761.124 euroko aurrekontua aurreikusi du, eta 29 hilabetetan garatuko da. Potecfaren bidez % 65eko dirulaguntza jasoko du partzuergoak. Arregi jakinarazi digunez, "beste %25 kofinantzaketa publikoarekin bateragarria da". Lagundutako finantzatze gehigarri hori lortzeko, Arregi zahartze aktiboarekin zerikusia duen Nafarroako Gobernuak hainbat departamenturekin harremanetan ari da.

Bertan estrategia 2020an hasiko da gauzatzen. Arregik esan digunez, "aurreneko urtean, lehenik, metodologiak eta akzioak proposatu eta zehaztuko ditugu. Europako adibideak ezagutzeko aukera ere az dugu baztertu. Hortik lau ekintza pilotu aterako dira". Lau horiek etxebizitza, garraio egokitu, etxez etxeko zaintza eta komunitate zaintza esparruekin erlazioa izanen dute. 2021ean jarriko dira ekimen horiek martxan.

## Lau ekintza pilotu

Horietatik bi Sakanan egingen dira. Arbizuko Olatzea hotela zena etxebizitza esparruko baliabide bilakatuko da. Arregik azaldu digunez, "etxebizitzaren gaiari zein konponbide eman

## Burundako mandazainei eskainitako liburua

Nicolas Arbizu Gabirondok idatzi du "Burundako mandazainak" liburua Iturmendiko udaletxean aurkeztuko du, larunbatean, 12:00etan, udaletxean aurkeztuko du. Aurretik, 10:00etan, plaza-tatik Bernoako galtzadara bisita egingen dute. Burundan mandazain lanbideak aparteko oihartzuna izan zuen. Horren arrastoa dira San Anton kofradiak.

## Pikuxarreko kideak euren egutegiko protagonista

Pikuxar euskal txokoak elkarte-kideak protagonista dituen egutegia jarri du salgai. Pikuxar berria hartuko duen etxe zaharrean egin dituzte argazkiak. Eta horiekin tabernan erakusketa egingen dute. Argazki erakusketa igandean, 12:30ean, mustuko dute eta abenduaren 26ra arte izanen da ikusgai. Egutegia tabernan izanen da salgai.

## Seigarren kalendaryuandako laguntza eske

Hurrengo urtea seigarrena izanen da Bakaikuko etxe askotan herria bera protagonista den egutegia izanen dela, Bakaikukko Kalendaryua. Hura egiteko, ordea, argazkiak behar dituzte. Egutegia bakaikuar guztien artean osatu nahi dutenez, haiengana jo dute laguntza eske. Argazkiak bakaiku.egutegia@gmail.com e-postara bidali daitezke.

## Correoseko bulegoak Renfeko txarteldegi bihurtu dira

Renfek eta Correos enpresek lankidetzara hitzarmena sinatu dute eta, ondorioz, Sakanan Irurtzungo eta Altsasuko postetxeetan erosi daitezke AVE eta distantzia ertain eta luzeko trenetarako txartelak. Sakandarrek orain arte tren txartelak Renfereen web orriaren bidez edo trenetan bertan eros zitzaizketen soilik.

# Aktiboa izan dadin zahartzea

Iparraldeko eta Euskadiko beste erakunde batzuekin batera Sakanak "mugaz gaindiko landa gunetako eskualdeen zahartze aktibo eta osasungarri baterako soluzio berritzaileen diseinu eta inplementazio" proiektuan parte hartuko du

diezaiokegun adinduen ikuspegitik. Oraindik bere kasa moldatzeko inolako arazorik ez duen pertsona baten profila zehaztu dute. Agian, bakarrik bizi da, edo herriatik urruti, edo garai bateko etxe handi batean bizi da... Nola egin pertsona horrek bere espazioa izateko, baina komunitate baten barruan. Zeinak daukan hainbat zerbitzuetara sarbidea eta herri batean kokatuta dagoen".

Sakanan ere ibar guztirako garraio egokituko egitasmo pilotua garatuko da. Nolabaiteko ezgaitasuna duten pertsonen erparatu diote. "Egokitutako bi ibilgailu aurreikusten ditugu, ibarreko punta banatik abiatuko direnak, eta zerbitzua ematea pertsonak bizi diren toki guztietatik pasatuz". Proiektuak aukera ematen duenez, ibilbideak hainbat fasetan probatuko dituztela jakinarazi du Arregik. "Jendearendako benetan erabilgarria eta benetan sinisten duen garraio bat jartzea" da helburua.

Euskadin komunitatea sortzearen inguruko proiektua landuko dute. "Zein garrantzitsua den pertsona asko bizi ez diren toki batean bertan dagoen apaiza, dendaria, tabernaria, botikaria edo dena delakoa. Ez da soilik zerbitzua ematen duen pertsona. Berak herria ezagutzen du, egunero jendearekin dago, badaki pertsona bat hiru egunetan ez bada azaldu agian zerbait pasa zaiola, pertsona batek lehengo gaitasunak ez dituela, lehengo higie ne bera, erlazionatzeko arazoak ditu... Berari pautu batzuk emanez gero, eta jasotzen duen informazioa nola iragazi dezakeen erraztuz gero, gizarte zerbitzuetatik joaterakoan teknikariari izugarritzko laguntza emanen lioke".



Jendea Irurtzungo San Martin kalean.

Zaintzen eta zaintzaileen inguruko arloa Iparraldean landuko dute. "Zaintzaileen figura hori profesionalizatzen eta beraien-ganako gizarteak duen irudia hobetzen zentratuko gara. Kanpotarrak ikusten ditugulan horiek egiten, hemengoek ez dutelako lanpostu erakargarri ikusten. Beste edozein lanpostu bezain duina da, eta erabat beharrezkoa. Hemengoak zergatik ez ditugu lan horiek egiten? Kanpokoei ere erraztasunak eman nahi dizkiegu arlo horretan treba daitezen eta arlo horretan lan duina lor dezaten. Bi alderdi horiek uztartu nahi ditugu eta horri buelta eman. Eta bide batez zerbitzu hori hobetzen, optimizatzen saiatu".

## Nondik dator guztia

Arregik azaldu digunez, "ibarrean 2016an egindako azterketa bati esker, Sakanaren ezaugarri geografiko eta demografikoengatik, SGAK zahartze aktiboa arlo estrategikoa zela identifikatu zuen". Abiapuntu hori izanik, agentziako teknikariak osasunarekin (Josefina Arregi klinika esaterako) eta zahartzearekin harremana zuten Sakanako eragileekin bilera ugari egin zituen (jubilatuko elkarteak, besteak beste).

Bestetik ibarrean dauden Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen hiru mankomunitateak, Europako proiektu baten bidez, bi ikerketa martxan jarri zituzten: "Bat zen Sakanan hutsik zeuden lokal publikoak zein ziren eta zein bideragarritasun aukera zuten adinduen egoerei erantzuna emateko. Bestea, oso inportantea, ikerketa soziologikoa egina zutela, adinduak eta ez hain adinduen 5-10 urterakonahiak jasotzen zituena". Proiektua garatzeko hiru mankomunitateek bat baliara bezala funtzionatzea erabaki zuten. Hala, SGAK eta hiru mankomunitateek indarrak batu zituzten eta guztien artean definitu zuten Bertan, Sakanaren Zahartze Aktiboaren Estrategia. Azterketaren ondorioz ikusi zuten Sakanaren egituragatik kalitatezko zerbitzu jakin batzuk etxe batzuetara iristea zaila zela.

Zazpi talde sortu ziren eta bakoitzak lan ildo bana landu zuen. Beste herrietako esperientziak ere jaso zituzten. Baina guztiari finantza oinarria bilatu behar zitzaioela ikusi zuten, ezin zela borondatezko lanean oinarritu. Poctefa programaren berri jaso

zuten eta mugaz gaindiko partzuergoa osatzeko bazkide bila hasi ziren. Bazkideak segituan opatu zituzten. Hala ere, denek ez dute abiapuntu bera, Sakanak lanak aurreratuak baititu.

Teknikariak azaldu digunez, "proiektuak hasieratik izan du Nafarroako Gobernuaren babes, Nafarroaren Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin (3S) erabat lerrotatzen baita". Arregik argitu digunez, "estrategia horrek hainbat lan ildo biltzen ditu". Bertan estrategia proiektua egokitu eta horrela lortu zuten Europako Poctefa mugaz gaindiko deialdira aurkeztea apirilean.

SGAko langileak proiektuaren "erabateko izaera soziala eta zeharkakotasuna" azpimarratu ditu. Aurreratu duenez, egitasmoa behar bezala definitzeko hainbat jarduera egingen dira heldu den urtean. "Oso garrantzitsua izanen da sakandarren parte-hartzea. Horrela, egingen diren ekintzak pertsonen errealitatera egokitua egonen dira". Arregik nabarmendu duenez, "proiektuak muga geografikoak gainditzen ditu. Izan ere, Bertan strategiaren misioa zahartze aktiboa eta osasuntsuaren arloan landa-eremuetarako zerbitzuak inplementatzeko eta hobetzeko metodologia bat sortzea da, etorkizunean Nafarroa eta munduko edozein lekutara estrapolatu ahal izanen dena".

## Sakanako sustatzaileak

Guztia aurrera eramateko osatutako partzuergoan ibarreko proiektu burua SGA da. Agentzia eta Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (ibarreko hiruen izenean) bazkideak dira. Egitasmoa bazkide elkarteak dira Arbizuko Udala, Sasoiak (Irurtzungo Jubilatua eta Pentsionisten Elkarte) eta Nafarroako Gobernuko Pertsonen Autonomia eta Garapenaren Agentzia. Bostek osatzen dute Nafarroako ordezkari eta egitasmoan Partzuergoko gainontzeko kideek ere halako egitura dute atzetik.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 29

## ETXARRI ARANATZ

Autodefentsa feminista. Neska-emakumeendako ahalduzte tailerra EMAGINen eskutik. 17:00etatik 20:30era, kultur etxean.

ALTSASU Jostailuen erakusketa gidatua. Txantxari udal ludotekak antolatuta. 17:00etatik 19:00etara, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda. Sex-gunea: sexualitate gazte zerbitzua. 17:30ean, Intxostiapunta gazte txokoan.

ALTSASU Palestinarekin elkartasun eguna. CAF ez itzazu eskuak Jerusalem zikindu! Askapenak antolatuta. 18:00etatik aurrera, lortia zabalgunean.

ALTSASU Ipuinen unea: Lur Usabiaga ipuin kontalariaren Oihaneko erregea ipuina. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Santiago Sierra

## ZORION AGURRAK



Haitz Lazkoz Ginea Zorionak "tesoro"! Abenduaren 5ean 7 ute beteko dituzu, egun ona pasa eta muxu pila bat aitatxo, Ainetz, Lizarragakuek eta amiñen partes!



Oihan Arana Zabala Zorionak Oihan, 15 urte!!! Egun polita pasa etxekoan partez!!

artistaren *Presos Políticos Espainia Garaikidean* erakusketaren itxiera ekitaldia: Artelan kolektiboaren mustutzea eta *Altsasu auzia*. *Hiru urteko labirintoa* jardueren bideoaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ *Bi stripu berri! Urrunketa politikarekin amaitzeko ordua da!* #StopDispertsioa Sare eta Etxerat elkarteek deitutako kontzentrazioa. 20:00etan, plazan.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Bakaiku eta Olaztín. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Pintxopotea Isunen aurkako taldeak antolatuta. 20:30etik aurrera, gaztetxean.

ALTSASU *La trinchera infinita* filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI Kontzertua: Xabi Solano Maiza eta DZ. 23:30ean, Barandi tabernan.

## LARUNBATA 30

ITURMENDI Beroako galtzadara bisita. 10:00etan, plazatik.

ITURMENDI *Burundako mandazainak* liburuaren aurkezpena Nicolas Arbizu Gabirondo egilearekin. 12:00etan, udaletxean.

LAKUNTZA *Libre zu, libre ni* mikromusikalaren emanaldia. 17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Santiago Sierra artistaren *Preso Politikoa Espainia Garaikidean* erakusketa.

Azaroaren 30era. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneke erakusketa gelan.

ALTSASU II. Mundu Gerrako Mauthauseko kontzentrazio-esparruaren argazki originalen erakusketa. Abenduaren 15era arte. Kukua tabernan.

ETXARRI ARANATZ *Baratze kritikoa* erakusketa. Azaroaren 28 eta 29. plazako estalopean.

ALTSASU Itsaspeko bihotzak. Haur literaturaren bidez hezkidetzatza lantzeko saioak.

Abenduaren 2tik 19ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatean emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneke erakusketa gelan.

ALTSASU Karmelo C. Iribarren idazlearen eta Ikor Kotx argazkilariaren Aire freskoa erakusketa. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneke erakusketa gelan.

IRURTZUN Zaharrak berri argazkien erakusketa. Abenduaren 1etik 26ra. Pikuxar euskal txokoan.

IRURTZUN Orritz dantza taldearen 30. urteurrena. Dantza jaialdia. 18:00etan, frontoian.

ALTSASU Gazte agenda. Serigrafia tailerra. 18:00etan, Intxostiapuntan.

LAKUNTZA *Volar* filmaren emanaldia eta zineforum Emakunderekin. 19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU *El Brujoren La luz oscura* antzezlan. 19:30ean, lortia kultur gunean.

## IGANDEA 1

ALTSASU Legaire-Entzia ibilbidea eginen dute Altsasuko Mendigoizaleak taldekoek. 08:00etan, egoitzatik.

ALTSASU San Jualianera eta Marutegira 42 km-tako ibilbidea eginen du Barranka BTT taldeak. 09:00etan, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU *La trinchera infinita* filmaren emanaldia. 19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU *Un asunto de familia* zineforum filmaren emanaldia. 19:40ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 2

ALTSASU Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea. 12:00etan, plazan.

ALTSASU AGAren joste tailerra. 19:00etan, gaztetxearen sutondoan.

## ASTEARTEA 3

IRURTZUN Nafarroaren eguna. San Francisco de Asis abesbatzaren kontzertua. 12:45ean, San Martin elizan.

ARRUAZU Nafarroaren eguna. Erkudengo Ama abesbatzaren

kontzertua. 13:00etan, Jasokundearen ama elizan.

ETXARRI ARANATZ Nafarroaren eguna. Burlatako San Juan abesbatzaren kontzertua. 13:00etan, elizan.

ALTSASU Nafarroaren eguna. Valtierako Virgen de Nieves abesbatzaren kontzertua. 13:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Euskal ekitaldiak. *Bizi dantza* Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren ikuskizun berriaren emanaldia. Aizpea elkarteak antolatuta. 17:00etan, kiroldegian.

## OSTEGUNA 5

ALTSASU *La hija de un ladrón* gaurkotasunezko filma. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU *Retrato de una mujer en llamas* zineforum filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Errepresaliatu gaixoak kalera, amnistia osoa. AEMren Kontzentrazioa. 19:30ean, plazan.

## OSTIRALA 6

ALTSASU *Golazen 6.0* ikuskizunaren emanaldia. 16:30ean eta 19:00etan, lortian.

HIRIBERRI ARAKIL Euskararen eguna. Ibil bedi taldearen kontzertua, afaria eta, ondoren, atzoko eta gaurko kantak trikitiiaz lagunduta. 19:30etik aurrera, plazan.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com - www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU - Tel./Faxo: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860



**ALTSASU** *La hija de un ladrón* filma. 22:00etan, Iortia kultur gunean.

## IGANDEA 8

**ALTSASU** Santa Marinara 44 km-tako ibilbidea eginen du Barrankak. 08:30ean, Urbasako portuaren hasieran.

**ALTSASU** *La oveja Shaun*. *Granjagedon* familiarterko filma. 17:00etan, Iortia kultur gunean.

**ALTSASU** *La hija de un ladrón* filma. 19:30ean, Iortia kultur gunean.

**ALTSASU** *Retrato de una mujer en llamas* zineforum-a. 19:40ean, Iortia kultur gunean.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira. 20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 9

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. *Sakanako* Pentsiodunen eta *Adinduen* Koordinakundea. 12:00etan, plazan.

## ASTEAZKENA 11

**ALTSASU** Literatur solasaldia: *El barón rampante* liburua. 18:00etan, Iortia kultur gunean.

**ALTSASU** *Jarain.app!* *Indarkeria matxistarik gabeko Sakana* aplikazioaren lan saio publikoa. 18:00etan, Iortia kultur gunean.

## OSTEGUNA 12

**ALTSASU** Itsaspeko bihotzak. 17:00etan, Iortia kultur gunean erakusketa gelan. Ikus 22. orrian.

**ALTSASU** *Si yo fuera rico* filma. 19:00etan, Iortia kultur gunean.

**ALTSASU** *Pajaros de verano* zineforum. 19:00etan, Iortia kultur gunean.

**IRURTZUN** *Xaxardi* ipuin ilustratuaren aurkezpena. 18:00etan, liburutegian.



ESKELA

## Agustin Razkin Lizarraga

—Goian bego—

"Isiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure oroimenean eta bihotzetan"

Aita Barandiaran zahar egoitzari eskerrak eman nahi dizkiogu bere zaintza lanengatik.

Hileta elizkizuna gaur, azaroaren 29an, ostiralean, 16:30ean izango da Dorraoko Jasokunde elizan.

**Etxekuek**

Dorrao

## JAIOTZAK

- **Pasnim Benomer Bellouchi**, azaroaren 9an Irurtzunen
- **Laia Hurtado Villamayor**, azaroaren 18an Irurtzunen
- **Lierni Larraza Gastaminza**, azaroaren 19an Urdiainen
- **Jilali Hernandez El Harda**, azaroaren 22an Altsasun

## EZKONTZAK

- **Jorge Arrasate Ieregi eta Arrate Diaz Larunbe**, azaroaren 1ean Irurtzunen

## HERIOTZAK

- **Maria Angeles Letona Lopez**, azaroaren 23an Altsasun
- **Modesto Paz Ventura**, azaroaren 24an Olaztin
- **Jose Garcia Sanchez**, azaroaren 25ean Altsasun
- **Miguel Angel Armendariz Huarte**, azaroaren 27an Irañetan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## IRAGARKI SAILKATUAK

### LANA/NEGOZIOAK

**ERRENTAN HARTU**  
Aizarozko ostatua hartzeko: Basaburuako Udalak Aizarozko ostatua errentan emateko deialdia egin du. Interesa dutenek 948 50 30 35 telefonora hots egin dezakete.

### LAN ESKAINTZA

**Etxarriko taberna batean, asteburutan lan egiteko pertsona behar da.** Esperientzia eta lan egiteko gogoekin. Deitu 666 224 704 ffnora.

**Cederna Garalur elkar-teak tokiko garapen agente bat kontratatu nahi du Bortzirriak, Ma-llerreka eta Bertizaranan lan egiteko,** eszedentzia bat dela eta. Eskatzen da: Unibertsitate mailako titulazioa; Euskalduna izatea, egiaztatuta daitekeen C1 mailarekin (edo titulu baliokidearekin); B1 gidabaimena eta autoa. Aurkeztu beharreko dokumentazioa info@cederna.es helbidera bidali azaroaren 29ko 14:00ak baino lehen. Informazio gehiago: www.

cederna.eu/eus web orrian edo 948 20 66 97 telefono zenbakian.

### OHARRAK

**Sei elkarterako boluntarioak:** Sei elkar-teak bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin astean bi ordu egoteko 21 urtetik gorako boluntarioak behar ditu: asteartetan Iturmen-din eta ostegunetan Altsasuko gazte gunean, 17:00etatik 19:00etara. Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449

telefonoetara hots egin dezake, edo gestion@asociacionsei.org e-postara idatzi dezake. www.asociacionsei.org, informazio guztia.

**Etxarriko irakurle taldea:** abenduaren 12an, ostegunetan, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian elkartuko dira eta "Egunero hasten delako" liburuz arituko dira. Gonbidatuta zaude. www.iragarkilaburak.es

ESKELA



## Vicente Zufiaurre Pozueta

Pasa den astean zendu zen

Sara Zufiaurre Mendoza gure lankidearen aitak utzitako hutsunearekin bat egiten dugu

**Iñigo Aritza ikastolako familia, irakasle, ikasle eta langileak**



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGUÁ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** **ETXARRI ARANATZ**  
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

✉ @Grupolrache

f Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Laboral Kutxa Emakume Master Cupeko Lau T'erdia azken txanpara iritsi da. Aurreko asteburuan finalerdia jokatu ziren, eta promozio mailako pilota goxuko lau t'erdian Amaia Jakak Naroa Elizalde izan zuen aurkari Mañarian. Ihabarko pilotariak partida bikaina jokatu zuen eta 6 tantotan utzi zuen Zubietako Elizalde. Pozik dagoela aitortu du Jakak eta bihar, larunbata Otxandion jokatu duen finala "zaila" izango dela aurreikusten du, Ruiz de Infante "pilotari bizia" delako.

**Emakume bakarra zela uste zuen** 26 urte ditu Amaia Jakak. Persona Adinduak zaintzen dituen Eguneko Zentro batean egiten du lan eta pilotan entrenatzeko tartea ateratzea ez da erraza, baina gustura dabil Ihabarko pilotaria. Txikitan pilotan aritzen zen Irurtzun klubean, baina 14 urterekin utzi behar izan zuen. "Orduan ez duzu asko ulertzen, esaten dizute jada ezin zarela lehiatu eta pilota utzi nuen. Egia da mutilen kontra iristen dela momentu bat ezin garela lehiatu. Pentsatzen

# Amaia Jaka Emakumeen Master Cupeko finalean

**PILOTA** Ihabarko pilotariak Ainhoa Ruiz de Infante otxandiarra izango du aurkari bihar, larunbata, 17:00etan, Otxandion jokatu den Laboral Kutxa Emakume Master Cupeko promozio mailako pilota goxuko lau t'erdiko finalean

nuen ni nintzela pilotan aritzen zen neska bakarra. Eta orain ohartu naiz neska asko ginela, eta niri pasatu zitzaidana ere beraiei pasa zitzaie. Urte asko daramatzagu jokatu gabe eta orain pozik nago, pilotan neska asko gaudelako" adierazi digu Amaiak.

**12 urte ondoren itzuli da** Herriko frontoian lagunekin edo anaiarekin pilotan tarteka aritu izan dela gaineratu du. "Beti jokatzen duzu zerbait, baina txapelketetan parte hartu gabe ia 12 urte egon naiz". Emakume Master Cup txapelketako antolatzaile Iker Amarikaren deia jaso arte. "Emakume Master Cup San Fermin Torneo antolatu behar zutela esan zidan, eta ea bertan aritu nahi nuen. Zalantzak nituen, ikusi nuelako maila oso handia zegoela... baina azkenean animatu nintzen. Finalera sailkatu nintzen, eta izugarria izan zen: Sanferminetan, Labrit goraino betea... oso polita izan zen, guretako opari edo espektakulu bat. Nik eta Maite Ruiz de Larramendik 21 eta 22 galdu genuen Agirrerren eta Orbegozoren kontra, baina saria bertan egotea izan zen" gogoratu du.

**Ezkerrarekin mina egiten du** Pilotara bueltatzea, hori da udan erabaki behar izan zuena. "Azkenean Emakume Master Cup Lau T'erdian izena ematea erabaki nuen. Irurtzun Pilota Klubean federatu eta entrenatzen hasi nintzen. Batzuetan sufritu egiten dut, segurtasun falta dut, baina saiatzen naiz partidetan disfrutatzen" azaldu du Ihabarko pilotariak. Txapelketa azaroaren 3an hasi zen eta Uxue Azkonobieta izan zuen aurkari, Beran. Jaka goitik behera nagusitu zen, 4 tantotan utzi baitzuen atandarra. "Partida ongi joan zen. Uste dut ezkerrarekin min handia egiten dudala eta dohain hori



Amaia Jaka finalerdian, ezkerrean, Naroa Elizalderekin. EMAKUME MASTER CUP

oraindik ez dudala galdu. Berez eskuina naiz, baina pilotan hobeto moldatzen naiz ezkerrarekin. Ezkerrarekin segurtasun handiagoa daukat eta horrekin mina egiten dut" aitortu digu.

Laboral Kutxa Emakume Master Cup Txapelketako promozio mailako pilota goxuko finalerdia larunbatean jokatu zuen Amaiak Naroa Elizalderen kontra, Mañarian. "Partida honetara beldurrarekin joan nintzen, badakidalako Naroak maila handia duela, eta ni baino indar gehiago. Baina Naroak ez zuen bere egun onena izan. Niri guztia atera zitzaidan ongi eta berari, aldiz, ez. Baina beno, ni oso pozik finalera sailkatu izanagatik" adierazi du Amaia Jakak.

**Final zaila aurreikusten du** Final handia bihar, larunbatean, 17:00etan jokatu du Amaia Jakak Ainhoa Ruiz de Infanteren kontra, Otxandion. Ruiz de Infante bertakoa da eta kantxa

**"USTE DUT  
EZKERRAREKIN MIN  
HANDIA EGITEN  
DUDALA; DOHAIN  
HORI EZ DUT GALDU"**

faktorea alde izango du. "Larunbatean jakingo dut ea kantxa faktoreak horrenbeste eragin duen (kar, kar...). Kontentu nago, ea frontoia betetzen den eta partida ona egiten dugun. Hori da garrantzitsuen" aipatu du Jakak. Ruiz de Infante ez du ezagutzen. "Finalerdietan ikusi nuen pixka bat. Oso neska bizia dela ematen du, indarra baduela, eta banago partida zaila izango dudala aurretik. Ni nirera atera beharko dut, nire dohainak aprobeztatzera" gaineratu du.

Pilota goxuarekin dabil Amaia Jaka. "Pilota mistoarekin jokatzea niretzat askoz politagoa da, baina urte asko daramatzat pilotan aritu gabe eta pilota mistoan aritzeko eskuak egin beharra dago. Salto hori ezin da bat batean eman. Momentuz eroso nago pilota goxuarekin. Akaso pilota mistoarekin entrenatzen hasiko naiz, baina txapelketetan oraindik goxuarekin ariko naiz. Pilota mistoarena beste salto bat da" nabarmendu du Jakak.

Irati Igoa eta Irati Irigoien Nafarroako pala eta taekwondo txapeldunak izan direla jakitean kontentu jarri da Jaka. "Pozten nau hori entzuteak. Neska kirolari asko gaude, naiz eta gutaz

**SUSTRAIKIDE**  
Laguntza txiki batekin, gauza handiak lortzen ari gara

**Sustrai Erakuntza**

**Sustrai Erakuntza Fundazioa**  
[www.sustraiarakuntza.org](http://www.sustraiarakuntza.org)  
sustrai@sustraiarakuntza.org  
ES15 3035 0162 76 1620031982



# "Nafarroako txapela lortzeak asko poztu nau"

**IRATI IGOA SESMA NAFARROAKO KLUBEN ARTEKO PALETA GOMAKO TXAPELDUNA**

**PILOTA** Irati Igoak eta Maite Ruiz de Larramendik Nafarroako Kluben Arteko Emakumezkoen Binakako Paleta Goma Txapelketa irabazi zuten Toki Alai pilotalekuan

**Maidar Betelu** ETXARRI ARANATZ

Larunbatean jokatu zen, Uharte Iruñeko Toki Alai pilotalekuan, Nafarroako Kluben Arteko Emakumezkoen Binakako Paleta Goma Txapelketako finala. Alde batean, Mendillorri klubeko Espinal eta Azanza, eta bestean Oberena klubeko Irati Igoa etxarriarra eta Maite Ruiz de Larramendi.

Final entrenigarrian, Irati Igoak eta Maite Ruiz de Larramendik hartu zuten aurrea. Aurrelari etxarriarrak partida bikaina ondu zuen, eta aurreko koadroetan Espinali gailendu zitzaion. Azkenean, 17 eta 30 irabazi zuten Irati Igoak eta Maite Ruiz de Larramendik eta Nafarroako txapelkunak izan ziren. Unai Lasok jantzi zien txapela.

**Zer moduz joan da txapelketa?**

Bost bikote lehiatu ginen Nafarroako Kluben Arteko Emakumezkoen Paleta Goma Txapelketan: Oberena klubetik Murillo-Lusarreta eta gu, Igoa-Ruiz de Larramendi, Mendillorritik Espinal-Azanza, Txarutatik Dendarrieta-Iriarte eta Auñamenditik Saragueta-Ardanz. Ligaxka jokatu zen, denak denek kontra, eta gero finalerdiak eta finala. Hasieran ez genuen argi finalerdietarako sailkatuko ginen ala ez, ligaxkan bi partida irabazi



Irati Igoa, ezkerrean, eta Ruiz de Larramendi, Aristorenarekin txapela ospatzen.

eta beste bi galdu genituelako, baina azkenean tanto averagegatik edo egindako tantoak kontuan hartuta, finalerdietarako sailkatu ginen. Finalerdietan Auñamendiko bikoari 26 eta 30 irabazi genion eta gero larunbatean finala jokatu genuen, Espinal-Azanzaren kontra.

**Larunbatean Uharte Iruñeko Toki Alai jokatu finala estuagoa izango zela aurreikusten zen.**

Ba nik uste nuen partida gogorragoa izango zela, Espinal eta Azanza oso onak direlako. Lehenengo tantoa sakez egin genuen

guk, eta gero zuzenean 9 eta 0 aurreratu ginen, eta aldea handia zenez, lasaitasun pixka batekin aritu ginen, konfiatu gabe baina lasaitasun gehiagorekin. Espinali eta Azanzari ongi kolokatzea kosta egin zitzaion; Uharte Iruñeko frontoia txikiagoa da eta ez ziren ongi kolokatzen, eta atzearia nahiko erraz harrapatzen genuen. Beraiek arriskatu zuten, baina ez zitzaizkien jokaldiak ateratzen. Guri, ordea, dena atera zitzaigun ongi. Azkenean 30 eta 17 irabazi genuen eta oso pozik.

**Hortaz, pozik?**

Espinalen kontra irabazi genuen eta horrek eman zigun bizia berriro. Izan ere, Amaia Espinalen pike oso sanoa dugu. Txikitatik elkarren kontra aritzea tokatu zaigu. Bera oso ona da eta gehienetan finaletan beraren kontra aritzen gara.

**Zuek jokatu finala ikusteko aukera dago Nafarroako Euskal Pilota Federazioaren Facebookean. Partidaren emisioa egin zuen kazetariak dio oso partida ona izan zela eta bereziki zuk, Irati, oso partida ona egin zenuela...**

Bai, oso gustura egon nintzen lehenengo tantotik. Nire eguna izan zen, dena ateratzen zitzaion. Lagunak etorri ziren partida ikustera, eta oso ongi.

**Lizarragako festetan bikain ospatuko zenuen...**

Bai, aita Lizarragakoa da eta ni asko egoten naiz han. Ederki ospatu genuen eta omenaldia egin zidaten frontoian. Oso eskertuta nago.

**Esku pilotan ere tarteka aritzen zara.**

Esku pilotako txapelketan has-teko deitu zidaten, baina pentsatzen ari naiz. Pala, futbola, entrenatu... ez dit biziak ematen.

**Nola egiten duzu guztira heltzeko?**

Altsasu futbol taldeko emakumeen talde txikia entrenatzen dut. Euren partidak normalean larunbat goizean izaten dira. Gero, larunbat arratsaldetan pala partidak izaten ditut normalean eta igandetan Mulier futbol taldeko partidak jokatzeko ditut, bertako futbolaria naizela. Alde batetik bestera ibiltzen naiz asteburuan.

**Eta nola zabilzate Mulier futbol taldean?**

Espainiako Ligako 1. Maila Nazionaleko 2. multzoan jokatu dugu. Ongi hasi genuen denbo-

raldia, baina azken 3 partidak galdu egin ditugu jarraian; beraz, buelta eman beharko diogu ea boladari buelta ematen diogun. Aurten Maidar Granizo Altsasu taldeko atezaina gurekin hasi da Mulierren eta berarekin nago taldean, bi sakandar bakarrik, Aroa Cerezo lakuntzarrak Mulier taldea utzi eta aurten Berriozarren hasi delako, maila berdinean. Eta Ane Canterok futbola utzi du, lesioengatik. Berriozarren kontra abenduan jokatu dugu eta orduan Aroa izango dut aurkari, pike sanoa hau ere.

**Eta honi ikasketak gehitu behar dizkiozu...**

Kirol gradu bat egiten ari naiz Iruñean. Aurten bigarren urtea da, praktikoa. Goizean praktikak egiten ditut Molinon, eta arratsaldetan entrenamenduak hemendik bestera. Altsasuko neskek egiten ditudan entrenamenduak ere praktika bezala kontaktzen dute.

**Palan zein izango da hurrengoa?**

Ba asteburu honetan Emakumezkoen Sakanako Pala Txapelketan hasiko naiz. Eta aurrerago trinketeko hasiko da. Sakanako Uxue Murilloekin osatuko dut bikoa. Eta Maite Ruiz de Larramendik, Amaia Espinalen parte hartuko dute. Lauzpa-bost bikote gaude, denak ezagunak, palistarik onenak tartean. **Hortaz, oso garesti dago etxeko txapela.**

Zaila izango da, baina saiatuko gara. Ea lortzen dugun!

**"SAKANAKO TXAPELA GARESTI DAGO, BAINA ETXEKO LORTZEN SAIATUKO GARA; BIHAR HASIKO GARA"**

## Sakanako Nesken Pala Torneoa bihar hasiko da

**PILOTA** Mank-ek eta Gure Pilotak antolatutako txapelketan gaztetxoak eta puntako palistak ariko dira

Sakanako emakumezkoen palak osasun bikaina dauka, bereziki Etxarri Aranazko Gure Pilota elkartearen Aristorenaren esanetara egiten den lanari esker. Neska hauek lehiatzeko aukera izan dezaten jaio zen Sakanako

Nesken Pala Torneoa, aurten 15 edizio beteko dituena.

XV. Gure Pilota Sakanako Nesken Pala Torneoa bi maila nagusitan jokatu da: gaztetxoak eta helduen mailan. Gaztetxoetan 5 kategoriatan lehiatuko dira pa-

listak: tximeletak, pottokak, usoak, kattagorriak eta txitoak. Eta, helduetan, bi mailatan: eliteak eta promozio mailakoak. Helduen mailan Nafarroako palista onenak ariko dira, punta-puntakoak. Tartean dago Irati Igoa etxarriarra, Maite Ruiz de Larramendirekin batera Nafarroako txapelketa dena. Irati Igoak Murilloekin osatuko du bikoa Sakanako txapelketan, eta bihar, larunbata, jokatu den lehen jardunaldian Saraueta eta Maite Ruiz de Larramendi izanen

### 1. jardunaldia

Bihar, 16:00etan, Etxarrin

**Helduak**

- **Promozioa**  
Balerdi-Gorostiaga / Eizmendi-Senosian / Gomez-Lusarreta / Arbizu-Urdangarin.

- **Eliteak**

- Irazustabarrena-Azanza / Espinal-Ardanz / Murillo-Igoa / Saraueta-Ruiz de Larramendi

ditu aurkari. Nafarroan ere palista bikaina den Amaia Espinalen ere Sakanakoan hartuko du parte.

Txapelketa azaroan eta abenduan jokatu da Sakanako pilotalekuan, larunbatetan. Goizeko 9:30ean gaztetxoak partidak jokatu dira eta helduenak, berriz, 16:00etatik aurrera. Asteburu honetan hasiko da lehia, bihar, larunbata, Etxarri Aranazko pilotalekuan, eta finala abendu bukaeran jokatu da, abenduaren 28an ziuurrenik.

## SAKANAKO TOPAKETAK

## KIMUAK. 5. JARDUNALDIA

IGANDEAN ALTSASUN, DANTZALEKUN

10:00 Altsasu B - Altsasu C

10:00 Suteqi - Lagun Artea 08

11:00 Altsasu A - Etxarri-Danbolintxulo

11:00 Etxarri-Hartzabal - Lagun Artea 09

Atsedean: Etxarri-Epele

**Sakanako Futbol Topaketak: kimuak igandean Dantzalekun** Sakanako Futbol Topaketetan igandean kimuen mailako 5. jardunaldia jokatu da Altsasuko Dantzalekun goizeko 10:00etatik aurrera. Benjaminek atsedean hartuko dute abenduaren 15era arte. Ez da lehiakortasuna sustatu nahi; besterik gabe, topaketetan txikienei txapelketa batean parte hartzea ahalbideratu nahi zaie.

## ELOMENDI TXAPELKETA.

## 8. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Zaldua - Eneriz 3-2

## SAILKAPENA

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1 Barasoain 21

75 Zaldua 13

## HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

Zaldua - Ardoi (Lekunberri)

**Zalduak Eneriz mendean hartu zuen** Arakilgo taldeak beste hiru puntu baliotsu lortu zituen Eneriz irabazi eta gero.

# Bikain ekin diote Binakako Txapelketari

**PILOTA** Ezkurdia-Martijak eta Jaka-Zabaletak garaipen sendoekin ekin diote Binakako Txapelketari. Gaur Jaka-Zabaletak Altuna-Ladis dituzte aurkari Amezketan. Bihar Ezkurdia-Martija Irribarria-Rezustaren kontra ariko dira Eibarren

Binakakoari primeran ekin diote gure pilotariek. Ezkurdiak eta Martijak Altuna III.a eta Ladis Galarza izan zituzten aurkari Azkoitian. Partida oso lehiatua izan zen, eta izugarri egin behar izan zuten lan laurek. Lehia orekatu eta borrokatua izan zen. Hasieran parez pare aritu ziren bi bikoak, baina 14nako berdinketaren ondotik, Ezkurdia eta Martija akaso erosoago aritu ziren. Martijak txokoa zaintzeko egindako lana txapela kentzeko modukoa izan zen. Bukaera horretan akats gehiago egin zituzten Altunak eta Ladisek, eta, azkenean, 22 eta 17 irabazi zuten Ezkurdiak eta Martijak, defentsa lan ikusgarria egin eta gero. Guztira 657 pilotakada gurutzatu ziren partidaren.

Igandean ekin zion txapelketari Jose Javier Zabaletak, aurreko koadroetan Erik Jakaren laguntza zuela. Aurrean Iker Irribarria eta Beñat Rezusta zituzten, duela hiru urteko Bina-



Zabaleta eta Jaka dira liderrak. ASPE

kako bikote txapelduna. Partida gogorra espero zen, momentuko bi atzelari onenen arteko lehia, Irribarriaren pilotakada gogorak eta Erik Jakaren debuta. Baina inolaz ere. Erik Jakak eta Zabaletak ikusgarri ekin zioten par-

tidari eta jokoz kanpo utzi zituzten Irribarria eta Rezusta. Atzeko koadroetan Zabaletak dominatu zuen, argi eta garbi. Aldiz, Rezusta ez zen fin ibili; akats nabarmenak egiten hasi zen, eta Irribarriak guztiz gaudituta ikusi zuen bere burua. Erik Jaka oso ongi aritu zen, eta 22 eta 5 irabazita, puntu garrantzitsua eta sailkapeneko lidergoa lortu zuten berak eta Zabaletak.

## Datorrena

Binakako Txapelketako 2. jardunaldian Jakak eta Zabaletak Altuna III.a eta Ladis Galarza izango dituzte aurkari gaur, ostirala, Amezketan (22:00, ETB1). Ezkurdia eta Martija, aldiz, Irribarriaren eta Rezustaren kontra ariko dira larunbatean Eibarren (17:00, ETB1). Binakako 3. jardunaldian elkarren kontra ariko dira sakandarrak, abenduaren 7an Labriten jokatu den partidaren. Katedrak partida oso gogorra aurreikusten du.

## FUTBOL PREFERENTEA

## 10. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Artea - Beriain 0-0

Doneztebe - Etxarri Aranatz 3-1

## SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Beti Casedano 20

5 Lakuntzako Lagun Artea 15

15 Etxarri Aranatz 10

## HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:30 San Jorge - Lagun Artea (Iruñea)

15:45 Etxarri - Aibares (San Donato)

## Lagunek berdindu eta Etxarrik galdu

Lagun Artea Beriain hartu zuen; lehen zatian Lagunek hartu zuen partidaren ardura eta zama, baina ez zuen kontrako atean asmatu. 2. zatian partida berdindu zen, baina bi taldeen jaurtiketek ez zuten fruiturik izan eta husna berdindu zuten.

Etxarri Aranatzek Donezteben jokatu zuen; Doneztebeok indartsu hasi ziren eta bi gol sartu zituzten. Etxarrik gora egin zuen eta gol bat sartu zuen. Pare pare zeuden bi taldeak, baina azken minutuan Doneztebek hirugarren gola sartu zuen.

## FUTBOL ERREGIONALA

## 10. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Salesianos 0-0

## SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA

1 Amaya 26

8 Altsasu 10

## HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

17:00 Beti Kozkor - Altsasu (Lekunberri)

## Altsasu golik ezin sartu

Altsasuk Salesianos hartu zuen etxean. Bi taldeak maila berean aritu ziren, paretsu, eta ez zituzten gol aukera oso arriskutsuak sortu. Puntu banaketarekin despeditu zen partida eta Altsasuk sailkapeneko erdialdean jarraitzen du.

## EMAKUMEEN ERREG.

## 12. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Castejon - Altsasu 2-0

## SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Castejon 31

7 Altsasu 18

## HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

15:30 Altsasu - Amigo (Dantzaleku)

## Altsasuk liderra estutu zuen

Castejon liderrak Altsasu mendean hartu zuen, baina ederki izerditu behar izan zuen horretarako.

## Osasunakoak Etxarrin

**FUTBOLA** Osasunako Moncayuela eta Fran Merida jokalariek Etxarri Aranatzaren egon ziren, futbol zaleen gozamenerako. Asier Urkia Osasunako fisioterapeuta etxarriarra, Osasuna Fundazioko Tomas eta Lacturaleko Maider Irisarri ere ekitaldian izan ziren, Etxarriko kirol zinegotzi Arturo Carreñorekin batera. Haurrek bikain pasa zuten.



UTZITAKOIA

## Osasuna Magnak ezin izan zuen liderrarekin

**ARETO FUTBOLA** Berdeak Bartzelonatik puntu gabe etorri ziren; gaur Zaragoza hartuko dute Anaitasunan

Osasuna Magnak Barça liderraren kontra jokatu zuen asteartean Bartzelonan. Partida bikaina jokatu zuten berdeek eta 11 minuturako 0 eta 2 aurreratu ziren Eric Martelek sartutako bi golei esker. Nafarrek estuasun handian jarri zuen Barça, baina liderrak egoerari buelta eman zion eta atsedaldia baino lehen 4 eta 2 aurreratzea lortu zuen. Bigarren zatian Osasuna Magna egoerari buelta ematen saiatu zen eta gol aukera ederrak sortu zituen, baina baloia ez zen sartzen. Azkenean, 6 eta 3 galduta itzuli ziren nafarrak.

Imanol Arregik azaldu zuenez, "berdinketa izango litzateke justuena, partida oso parekatua izan delako". Teknikariak gaineratu zuenez, "0 eta 2 aurreratu gara baina gure bi akatsengatik lortu dute erremontatzea, eta bigarren zatian hobeak izan gara, gol aukera argiak izan ditugu, baina ez dugu asmatu".

Barçak eusten dio lidergoari (27 puntu) eta Osasuna Magna 7. postura jaitsi da (15 puntu). Bihar, larunbata, Osasuna Magnak, 13. den Zaragoza hartuko du Anaitasunan, 20:00etan. Abenduaren 6an O Parrulo Ferrolen kontra jokatu dute berdeek, Galizian.

## SASKIBALOA San Ignaciorekin galdu zuten CBASK-ek

Gizonezkoen Autonomien Arteko 2. Mailako Ligan 8. jardunaldia jokatu zen. CBASK-Jatorman taldeak San Ignacio liderraren kontra jokatu zuen; altsasuarrek ederki estutu zuten liderra, baina, azkenean, San Ignacion 66 eta 54 irabazi zuen, 12 puntuko aldearekin. Autonomien Arteko 2. Mailako Ligako lider jarraitzen du San Ignaciok (16 puntu).

# "Senior mailako domina irabaztea handia izan da"

**TAEKWONDOA** Nafarroako Taekwondo Txapelketako senior mailako txapelketa irabazi du Bargagain klubeko Irati Irigoien Crespo urdiaindarrak, 16 urterekin. Abenduaren 6tik 8ra jokatu den Klubun Arteko Espainiako Txapelketa da hurrengo erronka

Azaroaren 16an senior mailako Nafarroako Taekwondo Txapelketa jokatu zen Castejonon. Sakanako Bargagain klubeko Irati Irigoien Crespo juniorra aritu zen bertan, Espainiako Txapelketetan bi domina dituen urdiaindarra. 57 eta 67 kiloan arteko kategorian lehiatu zen, atzera ere ikusgarri, eta 16 urterekin senior mailako urrezko domina lortu zuen, horren gazte izanda meritu izugarria. Urrezko domina horri esker, emakumezkoen taldekako txapelketan bigarren sailkatu zen Bargagain kluba. Horretaz gain, Nafar Kirol Jolasen Taekwondoko lehen fasea hartu zuen Castejonek eta bertan Bargagain taldeko 17 taekwondolari aritu ziren, primerako mailan.

**16 urterekin Nafarroako senior mailako txapelketa irabazteak badu meritua Irati.**

Bai, senior mailako txapelketa bat nire adinarekin irabazteak uste dut baduela meritua. 30 urte inguruko emakume bat ere bazegoen, beste bat nik baino lau urte gehiago zituen... beraz, ongi dago 16 urterekin irabaztea. Pozik nago.

**Nola joan zen txapelketa?**

Bi konbate izan nituen, lehena Berriozarko Maider Villava ize-neko neska batekin, nik baino



Irati Irigoien bere entrenatzaile Gerardo Monterorekin, urrezko dominarekin. UTZITAKOA

4 urte gehiago dituen. Konbate berria zen niretzako, normalean nire arerioak ezagunak izaten direlako, ia berberak. Eta nik uste baino errazago irabazi nuen konbate hori. Hurrengo konbatean ezagun bat izan nuen arerio, Berriozarko Alejandra Garcia. Kasu honetan pixka bat justuago ibili nintzen, baina azkenean nahikoa erraztasunarekin irabazi nuen. Egia esan, oso pozik geratu nintzen, azkenean Nafarroan garrantzitsua da senior mailako domina hori irabaztea.

**Eta behar bezala ospatu zenuen?**

Egia esan ez nuen asko ospatu, txapelketa garrantzitsuagoak baitituz. Abenduaren 6tik 8ra Klubun Arteko Espainiako Txapelketan ariko naiz, junior mailan eta 21 urtez azpiko mailan. Abenduaren 6an, ostiralean, juniorra jokatu da eta abenduaren 7an, larunbatean, 21 urtez azpikoa. Bi lehiaketa ezberdin dira eta oraingoz niretako garrantzitsuena da juniorren mailakoa, azkenaurreko urtea dudalako. Hemen aukerak baitituz. 21 urtez azpikoa konpli-

## Klubun arteko Espainiako Txapelketara

Ikasturteari 100 ikasle ingururekin ekin diote Altsasun Bargagain klubean, oso gogotsu, eta ikasle hauei Uharteko Arakil eta Olaztiko taldeetako gehitu behar zaizkie. Gerardo Montero Riverak jarraitzen du irakasle. Abenduaren 6tik 8ra Klubun Arteko Espainiako Taekwondo Txapelketa jokatu da Alacanten, eta Bargagain klubetik 5 taekwondolari ariko dira: Rania Mabchour eta Leire Etxaniz, haur mailan; Erkuden Moreno, kadete mailan (Espainiako bi domina ditu); eta Ane Gil eta Irati Irigoien (Espainiako bi domina ditu), junior mailan. Irigoien 21 urtez azpikoan lehiatuko da ere .

katuago izango da; dominaren bat lortzea poztasun handiz hartuko nuke, baina ez dago batere erraz. Beraz, espektatiba handirik gabe noa 21 urtez azpiko lehiaketa honetara. Garrantzitsua da, baina denboraldi honetan oraindik garrantzitsuagoa den beste txapelketa bat jokatu dut, Espainiako Taekwondo Txapelketa, baina ez klubun artekoa, selekzioen artekoa baizik. Bertan Nafarroako selekzioarekin arituko naiz. **Zortea alde izan dezazula Irati!** Eskerrik asko!

## Juanjo Garbizuk "Monterapia" ekarriko du Lakuntzara

**MENDIA** Mank-ek antolatuta, abenduaren 14an, goizeko 10:00etan, mendizaleak hitzaldia emango du

Juanjo Garbizu mendizaleak 2012an "Monterapia. Cuesta arriba se piensa mejor" liburua idatzi zuen. Sekulako arrakasta izan du eta 9 berredizio egin izan dira. Finean, Garbizuk dio mendia guztiz toki aproposa

duela arima sendatzeko. Berak uste du mendian gora eta behe- ra hobeto hausnartzen dela, eta mendizaleatasunaren terapia natural hori sustatu nahi du. "Etxe ondoko bazterrek arima sendatzeko balio dute. GPS gabe

baldin bada, hobeto, barnean ditugun gaitasunak eta ahalmenak lantzeko. "Off" botoia sakatu eta abiatu". Abenduaren 14an Garbizu Lakuntzako Kultur Etxera hurbilduko da, Sakanako Mankomunitateak antolatutako hitzaldian parte hartuz. Monterapia bere liburuaz ariko da eta mendizaleatasunaren inguruan duen filosofia azalduko du. Hitzaldiaren ondoren te beroa hartu eta eguraldiak laguntzen badu paseoa egingo dute menditik.

# Izagirre txapeldun eta Uncilla txapeldun bikoitza

**ZIKLO-KROSA** Larunbateko Garaiko Ziklo-Krosean elite mailan Gorka Izagirrek irabazi zuen eta kadeteetan Burundako Mikel Uncillak; eta hurrengo egunean, igandean, Beasaingo Ziklo-Krosean kadete mailan atzera ere txapelduna izan zen Mikel Uncilla

Larunbatean Garaiko Ziklokrosa jokatu zen, eguraldi oso gaiztoarekin. 2,950 kilometroko zirkuituari 6 itzuli egin behar izan zizkieten eliteek eta 23 urtez azpikoek, eta lohi artean, lehia oso estua izan zuten Astana Pro Team taldeko Gorka Izagirrek eta Eiser-Hirumet taldeko Jon Munitxak. Azkenaurreko itzulian eraso jo eta Munitxa atzean utzi zuen Gorka Izagirrek, eta bakarrik iritsi zen helmugara (57:19), Munitxari 44 segundo aterata.

Kadete mailan hiru itzuli egin behar izan zizkieten zirkuituari. Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Mikel Uncillak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen (27:06), Punta Galea taldeko Egoitz Hoyasi 13 segundo aterata. Sakana Group-Aralar taldeko Aimar Tadeo 7. sartu zen, 1:52ra.

**Beasainen Uncilla ere txapeldun** Hurrengo egunean V. Beasaingo Ziklo-Kros Sari Nagusia zegoen jokoan. 2,6 km-ko zirkuituari 6



Uncilla ikusgarri aritu zen. @ERIZFRILE

itzuli eman behar izan zizkieten eliteek, eta bezperan Garain garaipena lortu eta gero, Beasainen hirugarrena sailkatu zen Gorka Izagirre (1:02:47), Ismael Esteban txapeldunaren (1:00:13) eta Aitor Hernandezen (1:01:09) atzetik.

Junior mailan Ekin taldeko Aitzol Sasieta izan zen irabazle argia (42:53). Burundako Quesos Burundako Iker Mintegi 15. sartu zen, Sakana Group-Aralarko Jon Erdozia 23., Quesos Albenizko Jon Chamorro 27. eta bere taldekide Oihan Etxeberria 33.

Kadeteetan dobletea egin zuen Burundako Quesos Albenizko Mikel Uncillak, bezperan Garain irabazi eta gero, igandean Beasainen ere txapelduna izan baitzen sakandarra (29:43), 3 itzuliak azkarrenen osatu eta gero. 15 segundo atera zizkion Punta Galea taldeko Egoitz Hoyasi (29:59). Sakana Group-Aralar taldeko Aimar Tadeo 7. sailkatu zen eta Quesos Albeniz taldeko Mikel Regil 18. Emakumezkoen kadeteetan oso lehia estua egon zen eta, azkenean Arabarrak taldeko Maria Modenes gailendu zitzaizen (25:28) bere taldekide Lukene Trujillanori (25:30) eta Nafarroa Ermitagaña taldeko Nahia Imaz altsasuarriari (25:48).



Aurreko urteko irabazlea, Angel Vazquez, helmugara heltzen. ARTXIBOA

## Barricarte Memorialerako izena ematea zabalik dago

**ATLETISMOA** Altsasuko Zubeztia elkarteak antolatutako lasterketa herrikoia abenduaren 8an jokatu da

Korrikalariak abendu hasieran hitzordu berezia dute Altsasun. Zubeztia elkarteak antolatutako lasterketak urte mordoak betetzen ditu; izan ere, 39. Oinezko Lasterketa edo 36. Alberto Barricarte Memoriala izanen da aurten abenduaren 8an, Ama Birjinaren egunean, jokatu da. Aurten igandearrekin tokatzen da, igande honetan ez, hurrengoan. Lasterketari 11:30ean emango zaio hasiera eta Altsasuko herri gunean prestatutako zirkuituari lau itzuli eman behar dizkiote korrikalariak, guztira 10,6 km osatuz.

Lasterketa Zubeztia elkarteak antolatzen du, Altsasuko Udaren laguntzarekin. Festa eguna denez, San Silvestreari begira puntuan jartzeko proba aproposa da Altsasukoa, eta oso proba herrikoia. Aurreko urtean eguraldi eguzkitsua baina freskoarekin aritu ziren proban parte hartu zuten 155 korrikalariak eta Angel Vazquez lazkotarra (31:06) eta Cabanillas Aitana Gil (36:10) izan ziren azkarrenak. Ea aurtengoan ere eguraldiak lasterketarekin bat egiten duen.

### Ibilbidea (10,6 km)

Zubeztia elkarteak herrikoia antolatutako zirkuituari lau buelta eman behar dizkiote korrikalariak, guztira 10,6 km. Goizeko 11:30ean abiatuko da lasterketa, Zubeztia elkartearen albotik. Foruen Plazatik, eta Ferial eta Lapurbide kaleetatik barna Larrainbidera hel-

duko dira korrikalariak, Zubeztia kalea pasatu eta gero Zelai kalea igotzeko. Zelai kaleko goialdean buelta hartu eta Isidoro Melerorantz joko dute lasterkariak, Araba eta Idartzagain kaleetatik Auzobidera heltzeko, eta handik Alzania kalea hartzeko. Alzania kaletik San Juana iritsiko dira eta bertatik Zubeztia elkartera joko dute, udaletxe aurrera, han izango baita helmuga. Aipatu zirkuituari lau buelta eman eta gero despidituko da proba.

### Izena ematea zabalik

Barricarte memorialean aritzeko aurretik [www.dantzalekuskakana.com](http://www.dantzalekuskakana.com) web gunean egin daiteke izena ematea (3 euro). Bestela egunean bertan, lasterketa baino lehen, 10:00etatik 11:30era, Gure Etxean (5 euro). 18 urtetik gorakoek eman dezakete izena. Bukaeran Zubeztia elkarteak hartuko du sari ematea, eta bildutako guztiendako auzate ederra izanen da. Gainera, sariak zozketatuko dira.

### Sakanako atletismo kopako azken proba

Barricarte Memorialak 2019ko Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria erabakiko du, puntuagarria den azken proba delako, Ziordiko VI. Herri Krosa, XVI. Aitzkotzar Herri Krosa, Ergoienako XVI. Bira eta Sakanako XIX. Herri Lasterketa eta gero. Hortaz, Altsasuko asterketaren ondoren jakingo da nortzuk diren Kopako irabazleak.



BURUNDA TXIRRINDULARITZA TALDEA

## Burunda klubeko urteko batzarra

**TXIRRINDULARITZA** Ostiralean Burunda Txirrindularitza Taldeak urteko batzarra egin zuen lortia kultur gunean. Juntak urtearen errepaso eta balantzea egin zuen, eta bukaeran oroigarriak banatu zizkieten txirrindulariei. Aurtengo gonbidatua Euskadi

Fundazioko Ibai Azurmendi txirrindulari profesionala izan zen. Azurmendi Burunda klubean trebatu zen kadete eta junior mailan, eta etxera itzuli zen aitortza jaso eta neska-mutikoei oroigarriak banatzera. Bihar klubeko kideak bazkaltzera bilduko dira.



Orritz dantza taldea. UTZITAKOA

## Dantza taldearen iragana, oraina eta geroa elkarrekin

Orritz taldearen 30. urteurrena da eta bihar Dantza jaialdia egingen dute, 18:00etan, Irurtzongo frontoian

### IRURTZUN

1989. urtean sortu zen, "etenik" gabe Orritz dantza taldea Irurtzunen. "Aurreragotik zetorren istorioa". Oskia Ollakarizketa Orritzeko kideak azaldu duenez, 1960ko hamarkadan talde bat dantzaren inguruan mugitzen sortu zen, "baina garaiaren arabera gelditzen zen eta gero berriz hasi". Duela 30 urte "hiru pertsonak" bilera deitu zuten orduko gazteei zuzendua: "talde txiki bat elkartu zen". Gaur egun, 25 kide inguru ditu dantza taldeak. Bihar, larunbata, 18:00etan, taldearen 30. urteurrena ospatuko dute Dantza jaialdi erraldoi batekin. Izan ere, gaur egungo kideak ez ezik hiru hamarkada hauetan pasa diren dantzariak gonbidatu dituzte.

Dantza talde bezala sortu zen Orritz duela 30 urte, baina gaur egun "gazte elkarte" edo "kultur talde" bat da: "euskal folklorea edo kultura sustatzeko elkarte bat da". Euskal dantza tradizionalak dantzatzeko dituzte, eta, gainera, Iskidi izaki pertsonai mitologikoen taldea dute: "Dantza gustatu behar zaizun zerbaite da, beraz, dantzariak ez zirenak joareak jotzen hasi ziren eta joaldun taldea sortu zuten. Ondoren, izaki mitologikoak etorri ziren". Neska eta mutilen artean 25 kide dira, eta Irurtzundarrak ez ezik beste hainbat herritakoak daudela ere azaldu du Ollakarizketa: Arakil, Iza bailara eta Uharte Arakil.

"Gaur egun dantza taldean gaudenok aurrekoetatik ikasi

ditugu dantzak, baina hasiera-koak herri desberdinetara joan ziren dantzak ikastera eta hainbat taldeetatik etorri ziren irakastera ere". Euskal dantza tradizionala da taldearen oinarria, eta ildo beretik jarraitu dute hamarkada hauetan. "Duela 30 urteko dantzari ohiek esaten digute haiek ez zutela urrats bat modu honetan egiten". Denboraren poderioz aldaketak egon direla esan du Ollakarizketa, "baina berrikuntza handirik gabe".

### Jaialdi handia

Dantza taldearen 30. urteurrena ospatzeko 90 bat pertsona bilduko duen ikuskizuna egingen dute bihar, larunbata, 18:00etan, Irurtzongo frontoian. Aurretik, 17:30ean, "eguraldiak laguntzen badu" kalejira egin nahi dute dantzariak. Gaur egungo taldeko kideak ez ezik, dantzari ohiek ere ariko dira dantzari. "Nik uste dantzak ez direla ahazten. Hasieran hartu behar izan diote, eta errepasatu behar izan dute, baina behin hartuta, berehala hartu diote martxa". Emanaldian "aspaldian dantzatzeko ez zirenak dantzak" egingo dituztela aurreratu du Ollakarizketa. Ondoren, dantzariak afaltzera bilduko dira.

Orritz dantza taldearen bereizgarrietako bat jantziak dira. "Auzolanean egin ziren". Hasieratik garrantzia handia eman zieten jantziei, eta dantza bakoitzak bere jantzi propioa du. "Dirurik ez zegoen eta taldean eta gurasoen laguntzaz egin ziren".

# Lantegi zaharrak arte bihurtzen direnean

Koldo Aranz artista altsasuarrak 'Keinu bat iragan industrialari' erakusketa mustu du Aguraingo Zabalarte kultur etxean. Abenduaren 13ra arte egonen da zabalik, asteartetik igandera, 10:00etatik 13:00etara

### ALTSASU

Koldo Aranz artistaren aitak negozio bat zeukan eta lantegi asko bisitatzea tokatzen zitzaion. Aranzek gogoan du berarekin "laguntzera" joaten zela, "ez dakit asko laguntzen nuen, agian oztopo gehiago jartzen nituen". Beraz, bere aita laneko gauzak egiten ari zen bitartean, Aranz lantegietan galtzen zen. "Harrituta gelditzen nintzen aurrean ikusten nuenarekin". Oroitzapen horiek "disko gogor" antzeko batean gordeta gelditu zitzaizkion, gaia artearen bidez jorratu behar zuela erabaki zuen arte: "Keinu bat iraganari" erakusketa sortu du, eta orain Aguraingo Zabalarte kultur etxean ikusteko aukera dago abenduaren 13ra arte, asteartetik igandera, 10:00etatik 14:00etara.

Historiako gaiak lantzea gustatzen zaio Aranz. "Aurrekoan ibaietako ertzak landu nuen, eta orain lantegi zaharren gaia". Proiektu honekin duela zortzi urte inguru hasi zen, eta "oraindik ez dakit bukatuta dagoen". "Beste gai batzuk ditut buruan". Artistak azaldu duenez, azken aldian ez du margotzeko denbora asko izan, eta duela gutxi "berreskuratu" ditu pintzelak eta margoak.

Euskal Herriko lantegi zaharrak dira erakusketan agertzen diren hamalau margoen protagonistak: "gehienak bota dituzte dagoeneko, eta bakarrik tximinia uzten dute". Eraikin zahar horiek "xarma berezia" dutela aitortu du Aranzek, "behintzat niretako". Hortaz, administrazioak mantentzeko proiektuak martxan jarri beharko lituzkeela aldarrikatu du. "Ea erakusketarekin sentsibilizatzen diren eta ardura hartzen duten".

Lantegien margoak egiteko ikerketa handia egin du altsasuarrak. Izan ere, lantegietara joan da, bertako argazkiak egin ditu, "batzuetan ere itzuli behar



Agurainen zegoen Curtidos Salvatierra lantegiaren interpretazioa. MERAKI FOTOGRAFIA

## "HARRITUTA GELDITZEN NINTZEN LANTEGI ZAHARREKIN, IZAUGARRI GUSTATZEN ZAIZKIT"

izan dut ez naizelako egindako argazkiekin gustura gelditu", eta, ondoren, margolanarekin hasi da. Hala ere, aurretik "bozeto" bat egiten du. Gero "istorioarekin jolastan dut: estruktura transformatzen dut, gauzak kentzen ditut edo elkartzen ditut".

### Desagertutako artea

Badago kasu bakarra dagoeneko existitzen ez denez digitalki sortu behar izan duena: Altsasuko FASA. "Txikitan handi pasatzen ginela gogoratzen naiz, eta ikusitakoarekin txundituta gelditzen nintzen". Gordetako informazioa jaso du Aranzek, digitalki eraikinaren irudia sortu zuen, eta ezagutu zutenei galde egin zien: "antza handia duela esan didate".

"Leku asko bisitatu ditut, baina zerbaite esaten didatenekin gelditzen naiz". Lagunak bisitatzera joaten zenean Bergaran

ikusten zuen lantegia, Cortesen dagoen iringilea edo Ekingo zerrategia dira altsasuarrak margolanetan islatu dituen lantegietako batzuk. "Batzuk oso garrantzitsuak ziren, Ekaingo zerrategia, esaterako, Iratiko egur guztia hartzen zuen". Gehienak gaur egun oso egoera larrian daude, edo, besterik gabe, bota dituzte, "tximinia bakarrik" utziz. "Martzellako iringilean proiektu bat aurreikusten nuen jada".

Islatutako bi lantegi oraindik martxan daude: Olaberriako gasolindegia eta Iruñeko Caparrosoko errota. Hala ere, bi eraikinak moldatu dituzte, eta gasolindegia kasuan "xarma" galdu duela esan du Aranzek. Euskal Herriko hegoaldeko lantegiak jorratu ditu, izan ere, "Iparraldean industria gutxi" egon zen. Hala ere, beste tokietako informazioa badauka. "Baina ez dakit honekin jarraituko dudan", edo proiektu berri batekin hasiko den. "Mendia ere hor dut buruan".

Lantegi zaharrak "izugarri gustatzen" zaiola esan du artistak. "Pentsatzen nuen ero bakarra nintzela, baina Iruñean erakusketa eta sinposio bat egin genuen".



Ikor Kotx argazkilariaren irudi bat. IORTIA KULTUR GUNEA

## Egunerokotasuna gelditzeko gaitasuna

Ikor Kotx argazkilariaren eta Karmelo C. Iribarren idazlearen 'Aire freskoa' erakusketa mustuko dute abenduaren 3an, asteartea, Altsasuko Iortia kultur gunean. "Egunerokotasunezko" argazki eta poema bilduma egin dute artistek

### Haur literatura hezkidetzarako eta berdintasunerako tresna

Haur literaturaren bidez hezkidetzak lantzeko aretoa bihurtuko da Iortia kultur guneko erakusketa gela

ALTSASU / SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Eskara eta Berdintasun zerbitzuek, Itsaspeko bihotzak, haur literaturaren bidez hezkidetzak lantzeko aretoa jarduera antolatu dute abenduaren 2tik 19ra Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan. Abenduaren 12an familiei zuzendutako saioa egingen dute. Izena ematea abenduaren 9an amaitzen da, eta berdintasuna@sakana-mank.eus edo euskara@sakana-mank.eus emaillean egin daiteke.

Itsaspeko bihotzak haur literaturaren bidez genero berdintasuna lantzeko espazioa da. Parte hartzaileek literatura eta hezkidetzak uztartzen diren ibilbide artistikoa eta pedagogikoa egiten dute. Ibilbide honek haur literaturako lanak jasotzen ditu.

Galtzagorri elkarteak sortu du Itsaspeko bihotzak egitasmoa,



Itsaspeko bihotzak-ek ilustrazioa.

euskarazko haur literaturaren bidez genero berdintasuna gaia lantzeko. Besteak beste, irudikapen kolektiboan dauden genero estereotipoak lantzen ditu erakusketak. Sakanako Mankomunitateri esker iritsiko da egitasmoa Altsasura.



BAZTERRETIK

RICARDO ARETA URRESTARATZU

### Bakarrik sorginak nahi ditut konpainiarik gabeko gau honetan

Bakarrik sorginak nahi ditut konpainiarik gabeko gau honetan, Drogasen disko berriaz gain, bere aurreko lan diskografikoa argitaratu zenetik igaro diren 6 urteen laburpen ezin hobea da.

Egungo garaian bitxia egiten da norbaitek bost disko dituen lan bat argitaratzea. Baina bi orduko atsedena hartzeko gai bagara, egunero jasaten ari garen kontsumo azkarreko komunikazio bonbardaketa zora-biagarritik urrun, eta 42 abesti horiei aukera bat ematen badiegu, berehala ulertzen dugu lan hau ezin zela bestela egin.

"Timbre acústico". Enrique aurkezten den diskoa da. Bere aurreko kontzertu guztietan egin zuen bezala, publikoa gitarrak akustikoko batekin eta piano batekin bakarrik hartzen du. Zintzo

ALTSASU

Ikor Kotx bezala ezagutzen den argazkilariak eta Karmelo C. Iribarren idazleak ez dute elkar ezagutzen. "Erakusketa mustu genuenean Karmelo ez zen agertu". Argazkilariak uste duenez, askotan egondako taberna batean lan egiten zuen idazleak, eta agian "tragoren bat" zerbitzatu izan dio. Baina Aire freskoa erakusketa sortzeko ez dira behin ere elkartu. "Hala ere, erakusketa ikusi duen jendeak kontrakoa dirudiela dio". Erakusketa hainbat argazki eta poemek osatzen dute, eta Iortia kultur gunean abenduaren 3an mustuko dute. Hilaren 20ra arte izanen da.

Karmelo eta Ikor Kotx EHU hitzaldi bat emateko gonbidatu zituzten. "Hori da lotura bakarra". EHUko arduradunak bien erakusketa bat antolatu zitekeela pentsatu zuen, eta landutako gaiak kontuan izanda, Aire freskoa deitzea erabaki zuen. Izan ere, Ikor Kotxek azaldu duenez, bien lanak oso antzekoak dira. Erakusketak gai bat jorratzen ez duen arren, "egunerokotasuna islatzen dugu, artifiziorik gabea eta modu xume batean".

Ikor Kotx argazkilariak duela zortzi urte proiektu bat jarri zuen martxan. Lan egun bakoitzean argazki bat elkarbanatu zuen sare sozialetan. "Konpromiso hori hartu nuen". Duela bi urte "sorta handi bat" zuen eta zenbait artistekin elkarlanean liburu bat kaleratu zuen. "Liburu horietatik hainbat argazki aukeratu ditut erakusketarako". Ikor Kotxek, beraz, ez ditu erakusketa osatzeko Karmeloren testuak irakurri, eta Karmelok ez ditu aurretik argazkiak ikusi poemak sortzeko.

"Bien arteko lanean lotura dago". Izan ere, argazkilariak azaldu duenez, lan "oso urbanoak, eguneroko egoerak" azaltzen dituzte biek. Ikor Kotxen argazkilaritza "oso soila" da, "artifiziorik gabea". Kalean dabilen pertsona baten begirada momentu konkretu batean gelditzean datzala azaldu du argazkilariak. "Egunerokotasuneko momentuak" bilatzen ditu. Hortaz, Karmeloren poesia ere "oso zuzena" dela azaldu du Ikor Kotxek. "Kafe bat hartzen ari den gizon bati buruz hitz egiten du".

Villarealengan utzi duen arrastoak jasotzen du disko honek.

"Timbre fundido". Artista honen beste zaletasunetako bat literatura da. Laugarren atal honetan gorte bakoitzak "Fenix" Julio Ramón Ribeyroren ipuineko pertsonaietako bat aurkezten digu.

Hemen bandak soinu ilunagoekin esperimintatzen du, industrialekin, elektronikoen, disko kontzeptual hau borobiltzen amaitzen duen atmosfera sortzen dutenekin.

"Timbre equivocado". Eta dena zuria edo beltza ez denez, edo jostun kaxoi honetan sailkatzeko hain erraza ez denez, disko batetik bestera eboluzionatzeko bidean geratu den eta haien arteko zubi lana egiteko balio izan duen guztia aurkitzen dugu.

Heldutasunak lasaitasuna ematen du, baina Txantreano honek barruan daraman haur bitxiak bultzatzen du behin eta berriaz bere gitarra hartzera, pianoan esertzera eta, batez ere, egokitzen ez zaion hori idaztera, bere lekutik kanpo egotera eta musika estilo ezberdinekin esperimintatuz, konplexurik eta erreparorik gabek.



Joana Ziganda eta Iker Uribe 'Xaxardi' ipuin ilustratuaren egileak.

# "Iritzi propioa izatea da xedea"

**IKER URIBE ETA JOANA ZIGANDA ILUSTRATZAILEA ETA IDAZLEA**

Xaxardi ipuin ilustratua argitaratu dute Iker Uribek eta Joana Zigandak. Autoekoizten duten bigarren lana da 'Ni neu galtzeta' ipuinaren ondoren

**Erkuden Ruiz Barroso** IRURTZUN

Iker Uribe lakuntzarrak muralak margotzen ditu, eta ilustrazioak egitea gustatzen zaio. Joana Ziganda haur hezkuntzako irakaslea da eta haurrak oso ongi eza-gutzen ditu. Biek batera *Ni neu galtzeta* ipuin ilustratua kaleratu zuten duela bi urte, eta esperientzia hainbeste gustatu zitzaenez, errepikatzea erabaki dute. *Xaxardi* ipuin ilustratua kaleratu berri dute, eta Durangoko azokan aurkeztuko dute. Saguganbara espazioan egonen dira abenduaren 5ean, ostegunean, 18:00etan. Gainera, ipuina Autoekoizpenaren plazan salmahaian egonen da salgai. Abenduaren 12an, ostegunean, 18:00etan, Irurtzango liburutegian egingen dute ipuinaren aurkezpena. Aurkezpen "bereziak" eta "politikak" egiten dituztela esan dute artistek.

**Bigarren ipuin bat argiratzera animatu zarete. Nola sortu zen ideia?**

**I.** *Ni neu galtzeta*arekin salto bat eman genuen, eta asko gustatu zitzaigun. Hala ere, liburu bat autoekoiztea lan handi da.

**J.** Aurreko esperientzia positiboa izanda, argi genuen beste zer edo zer egin nahi genuela. Kasu honetan, bestearen kontrako prozesua egin dugu. Haur hezkuntzako irakaslea naizenez, hainbat egoera landu behar zirela ikusi nuen. Lehendabiziko mezua etorri zen. Eta hori lantzen joan ginen. Mezu hori transmititzeko pertsonaia behar genuen.

**"XAXARDIK BERTSOTAN HITZ EGITEN DU, KOPLAK ATERATZEN DIRENEAN BERE HITZAK DIRA"**

**Eta sasi-ardiak agertu ziren?**

**J.** Bai, pertsonaia hori Xaxardi zen. Sasi-ardi arrazako ardi bat da. Ni ez naiz ardietan aditua, baina arraza hau Euskal Herriko autoktonoa da eta nahiko animalia errebeldea da; ez du artzainak esaten duena egiten. Tamainaz txikiagoa da, baina heitzeko zaila da bere kabuz joaten delako. Bakarririk bizirauteko gai da. Eta nahi nuen perfila zuen. Noizbait sasi-ardiei buruz zerbait entzun nuen, eta bat-batean lotu nituen istorioa eta protagonista.

**Zein da mezu hori?**

**J.** Istorioak aurrera egin ahala mezu batzuk gehiago atera daitezke ipuinetik. Helburua norberaren indarra, iritzia eta inguruarekin kritikoa izatea da. Txikitan, nerabezaroan, gaztaroan eta heldutasunean ere taldeak eramaten gaitu, eta taldeak garrantzitsuak dira izaki sozialak garelako, baina iritzi propioa izatea ere garrantzitsua da. Hori indartu nahi dugu ipuin honekin.

**Xaxardi da protagonista, baina zein pertsonaia gehiago ateratzen dira?**

**I.** Sasi-artaldeko ardiak: Ariko, Muturbeltz, Kixkur... Beraien artean tirabirak sortzen dira. Artzaia neskatoa ere dago, Mailos deitzen dena. Ez da kasualitatea artzaina neska izatea. Mailosek ez du Xaxardirekin gora egiten.

**J.** Ipuinak arrisku bat behar zuen, haurrei arriskuek beldurrei aurre egiten laguntzen dietelako,

eta lantzeko oso delikatua izan den arrisku bat dago: hartza agertzen da ere. Bizikidetzatza hori adierazteko lan handia egin dugu. Hartza arriskutsu bezala ateratzen da, baina izaki dotore eta garrantzitsu bat bezala ere.

**Nola landu dituzu pertsonaia?**

**I.** Dokumentazio lana egin dut eta animaliak nolakoak diren begiratu dut. Sasi-ardiaren eta ardi latxaren arteko desberdintasunak ez dira hain nabarmenak. Sasi-ardia arinagoa eta meheagoa da, gorritxoagoa ere bada. Lepo luzeagoak dituzte. Bereziak pertsonaiei eman dizkiet pertsonalitatea. Pertsonai bakoitza landu dut, eta desberdinak dira. Hartzarekin bai bueltatxo batzuk eman genituela. Hartzak beldurra ematea nahi nuen, baina beste aldean ikusten da ere.

**Ipuinaren gainean egin dituzu marrazkiak, ez?**

**I.** Oraingoan horrela izan da, bai. Baina hartu eman bat egoten da ere bion artean. Luxu bat da Joanaren testuak lantzea. Haurraren ikuspuntua oso argi dauka. Sentsibilitate berezia du. Eta oraingoan, gainera, testu lanke handia dago.

**J.** Nik mandatu bakarra esan nion: Xaxardik zerbait izan behar zuen; errebeldea izan behar zuen, desberdina.

**Testuan narrazioak eta bertsoak kuztatu dituzu, ez?**

**J.** Xaxardik bertsoan hitz egiten du, orduan, koplak ateratzen direnean berak hitz egiten du.

## Guaixeren 25. urteurrenaren Batzen gaituena kit-ak salgai

**POLTSOA + TXAPAK + BOLIGRAFOA**

Bazkideendako 4 € / Gainontzekoendako 6 €

**Altsasun**  
Arkatx liburu denda  
Liburunda liburu denda  
AEK-ko euskaltegia  
**Etxarri Aranatz**  
Kaxeta liburu denda  
Beleixe Irratian (9etatik 12etara)  
**Arbizun**  
Arbizuko Eko kanpinean  
Irurtzun  
Pikuxar  
Martxueta liburu denda

**Guaixe 25**  
batzen gaituena



Iñigo Olivenza eta Joseba Lizarraga altsasuarrak Nottinghameko Bolt Action jokoaren Munduko txapelketan. UTZITAKOIA

# "Torneoetan jende asko ezagutzen duzu"

Bele Beltzak Altsasuko estrategia jokoaren taldea da. Iñigo Olivenza eta Joseba Lizarraga taldeko kideak Bolt Action jokoaren Munduko txapelketan aritu dira, Nottinghamen. Lizarraga Munduko txapelketaren irabazle naturala izan da

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

## 1 Zer da Bolt Action-a?

**Iñigo.** Estrategia joko bat da eta miniaturrekin jokatzen da. Miniatura horiek bigarren mundu gerran oinarritzen dira eta tablero batean mugitzen dira.

## 2 Miniatura horiek nolakoak dira? Zuek lantzen dituzue?

**J.** Paketea irekitzen duzunean burua alde batetik eta gorputza beste aldetik etortzen dira.

**I.** Guk muntatzen eta margotzen ditugu. Beraz, armada guztiak pertsonalak dira.

## 3 Zein da jokoaren helburua? Nolakoak dira lehiaketak?

**J.** Beste estrategia joko batzuetan objektiboa bestea hiltzea izan

ohi da. Honetan, ez. Misio batzuk daude: beste armada akabatzea izan daiteke, beste misio bat tableroan dagoen etxe bat lortzea... Objektibo desberdinak daude.

**I.** Torneoak egiten dira eta torneoak hainbat partidatara izan daitezke. Nahiko luzeak izan ohi dira. Esan bezala, bete beharreko objektiboak daude. Baina beti atzean istorioa bat dago.

## 4 Historiaz asko jakin behar da?

**J.** Jokatzeko ez da behar. Jolasten jakin behar duzu. Baina jokoan sartzen zarenean gehiago jakin nahi duzu. Adibidez, normalean sobietarrekin jokatzen dut eta begiratu dut non egon ziren eta bere historia pixka bat. **I.** Azkenean, jokatzean historiaz bustitzen zara. Askok ikasten duzu.

## 5 Taldeka aritzen zarete?

**I.** Indibidualki lehiatzen gara, baina Bele Beltzak deitutako elkarte bat sortu genuen Altsasun. Libre da. Edozein etor daiteke ikustera edo gurekin jokatzen. Jendea etortzen gonbidatzen dugu. Altsasukoak bost edo sei gara. Komunitate nahiko handia. Udalak Gure Etxean gela bat utzi zigun. **J.** Taldean gu biak, Haitz Bujanda, Iñaki Aldasoro eta Unai Lopez gaude. Torneoak eta beste hainbat jarduerak antolatzen ditugu.

## 6 Munduko txapelketan egon zarete, Nottinghamen.

**J.** Oso esperientzia ona izan da. Egun osoan primeran egon ginen. **I.** 100dik gora pertsonak parte hartu zuten. Oso giro ona zegoen, oso giro jatorra zen. Oso ongi aritu ginen. Lan izugarriak ikusten dira.

## 7 Zein postutan sailkatu zineten?

**J.** Berez irabazi egin nuen, baina puntuak ordenagailuan sartzekoan, akats bat egon zen eta 16 puntu sartu beharrean 8 puntu sartu zizkidaten.

**I.** Nik ez dakit nola gelditu nintzen, baina oso postu arruntan. Azkenean, zapora mingotsa gelditu zitzaigun.

## 8 Zer egin duzue Munduko txapelketara iristeko?

**I.** Estatuan eta Portugalen torneoak egiten dira. Hemen Altsasun gure elkarteak urtero torneo bat antolatzen du eta Madrilekora joateko plaza bat edo bi eskaintzen dira. Torneo horiek irabazi behar dituzu Madrilekora joateko, eta gero han Ingaltarrara joateko plazak lortzen dira. Beraz, bi torneo irabazi edo bigarren gelditu behar zara.

**J.** Aurten gu biok joan gara. Bigarren urtea izan da. Aurreko urtean Haitz Bujanda eta biok iritsi ginen.

## 9 Zaletasun garestia da, ez?

**J.** Badira armada indartsuak, bigarren mundu gerrako potentzia nagusienak, eta gero ahulagoak direnak. Beraz, armada batekin hasten zara, eta torneo bat irabazten duzunean beste bat oparitzen dizute; beldumarako beste bat. Klubean guztiak ditugu.

## 10 Sariak miniaturretan dira?

**I.** Antolatzen ditugun torneoetan hainbat babesle ditugu eta asko mugitzen gara sariak onak izateko. Horrela jende gehiago dator. Parte hartzaileek eguna Altsasun pasatzen dute, elkarrekin bazkaltzen dugu...

**J.** Harremana handia dugu Olaztikoko Pako harategiarekin eta pila bat laguntzen digu. Beraz, saria miniaturretan eta haragia izan ohi da. Etxeko berezitasun bezala.

## 11 Jende asko ezagutzen duzue.

**I.** Jendea asko mugitzen da. Klubean artean egindako komunitate bat da. Orokorrean, jendea oso jatorra da.

**J.** Nottinghamen Bilboko mutiko batekin elkartu ginen. Oso jatorra zen. EH team osatu genuen.

## BAZKIDE SARITUAK

- Iñigo Imaz Prim (Altsasu)
- M<sup>a</sup> Dolores Ruz Capella (Ziordia)
- Edurne Ruiz Iragi (Altsasu)
- Kontxi Galarreta Monreal (Lakuntza)

## ABENDUAKO SARIAK:

**1. SARIA:**  
 EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA  
 ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GATZUZULO: 3 HILABETEZ DOAN

**2., 3. ETA 4. SARIA:**  
 DONOSTIAKO AQUARIUMA: SARRERA BANA  
 ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GATZUZULO: 3 HILABETEZ DOAN

